

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ALDEZLEAREN URTEKO TXOSTENA

2019ko abenduaren 15a – 2020ko abenduaren 14a

Iñigo Urrutia Libarona

aldezlea

AURKIBIDEA

Sarrera	3
1. 2020ko aztergaiak	7
1.1. Bulegora jo duen pertsona eta aztergai kopurua.....	7
1.2. Bulegora jo duten pertsonen generoa.....	8
1.3. Bulegora jo duten pertsonen erabilitako hizkuntza.....	10
1.4. Aztergaiak kolektiboen arabera: Ikasleak, Irakasle-ikertzaileak, AZP eta "Beste batzuk"	11
1.5. Aztergai kopurua campusen arabera.....	13
1.6. Aztergai kopurua ikastegi eta zerbitzuen arabera.....	14
1.7. Aztergai motak.....	16
1.7.1. Kolektiboek planteatutako aztergai motak.....	16
1.7.2. Emakumeek eta gizonen planteatutako aztergai motak.....	19
1.8. Kolektibo bakoitzak planteatutako gaiak.....	21
1.9. Bulegoaren esku hartzea.....	31
1.9.1. Baietsitako kexen gaiak.....	32
1.9.2. Baietsitako kexen jomuga diren kolektiboak eta organoak.....	35
1.10. Jasotako erantzuna.....	36
1.11. Inplikaturako zerbitzuen eta arduradunen lankidetzak.....	36
2. Aldezlearen beste eginkizun batzuk	37
2.1. Lankidetzak G9 taldeko defendatzaileekin	37
2.2. CEDUren jardunaldi teknikoak	37
2.3. CEDUren XIII. Batzar Nagusia.....	37
2.4. Lankidetzak CEDUren defendatzaileekin, foroetan parte hartuz.....	38
2.5. UPV/EHUren Gobernu Kontseilua.....	38
3. Urteko txosten ekonomikoa	38
4. Ondorioak eta gomendioak	39
I. ERANSKINA: 2020ko aztergaien zerrenda	55

Sarrera

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutuen 77. artikulua betetze aldera, Aldezlearen zerbitzuaren urteko jardueren txostena aurkezten diogu Unibertsitateko Klaustroari. Txostena dagokio 2019ko abenduaren 15etik 2020ko abenduaren 14ra bitartean eginiko lanari.

2020a urte berezia izan da unibertsitatean. Urte zaila, SARS-CoV-2 birusak sortzen duen gaixotasunagatik: COVID-19a. Ez alferrik, gaitz horrek ahalegin itzela egitera behartu ditu gure unibertsitateko sektore guztiak, lan egiteko modu berrietara moldatzeko, egokitze denborarik gabe. 2019/2020 ikasturtearen bigarren lauhilekoan bete-betean sartuta geundela, UPV/EHUk eta hura osatzen duten estamentuek (ikasleak, irakasle-ikertzaileak eta AZP) lan egiteko moduak aldatu behar izan zituzten bat-batean, lan presentzialetik urrutiko modalitatara, konfinamenduak behartuta eta alarma egoera betean. Ordura arte ezagutu gabeko egoera horrek goitik behera baldintzatu zituen, ez bakarrik gure funtzionamendua eta gure irakaskuntza eta ikerketa lanaren ohiko baldintzak, baita ikaskuntza ingurune osoa ere, eta errotik aldatu zuen gure ohiko irakats eginkizuna.

Gurea bezalako unibertsitate batek –egitura, arautegi, jardunbide eta bokazio nagusiki presentzian oinarritua– denik eta desafio zailenari egin behar izan zion aurre. UPV/EHUk gizartearentzat lanean jarrai zezan lortzea, sorrerako helburua alboratu gabe, eta horren egoera gaitzean bere zeregina ez etetea... horixe izan da beharbada sekula izan duen erronkarik handiena. Eta desafio horri emandako erantzuna eredugarria izan da, unibertsitatea osatzen dugun pertsona guztion berebiziko inplikazioari, eskuzabaltasunari eta lan onari esker.

Unibertsitateak irakasten jarraitu du, ohi bezala gutxi gorabehera. Oro har, ikerketak ere aurrera jarraitu du, zailtasunak zailtasun, eta goraipatzekoa da ikertzaileek eta ikertaldeek egiten duten ahalegina: ikerketa lerroak aldatu eta beren ekarpena egin nahi izan diote COVID-19aren eta haren ondorioen aurkako borrokari.

Era berean, administrazio eta zerbitzuetako lanak ere ez du etenik izan, gure langileen profesionaltasunari eta lan onari esker. Lanean etxetik, kapaz izan dira funtzionamenduan mantentzeko UPV/EHUren makineria, pandemiak ahalik eta eraginik txikiena izan zezan irakasleen zereginean eta ikasleen lan akademikoan.

Halaber, txalotzekoa da ere ikasleek beren prestakuntzan sendo jarraitzeko egin duten eginahal handia. Gai izan dira egoera berrira egokitu eta atakarik gaiztoenean motibazioa aurkitzeko, orain arte ezagututakoarekin zerikusirik batere ez duen testuinguru batean.

Oro har, UPV/EHUK gaitasun izugarria erakutsi du kolpetik etorri zaigun egoera korapilatsuari aurre egiteko, bere jardunbideak berritzeko eta ausarki jokatzeko. Bihoakie hemendik Aldezlearen bulegoaren aitortza unibertsitate hau osatzen duten pertsona guztiei, egin duten lanagatik eta ahaleginagatik. UPV/EHUK espero bezala jokatu du, egoera oso zail batera egokitu da eta aurre egin dio zegokion desafioari: hots, goi mailako hezkuntza publikoa bermatzea euskal gizarteari, kalitatean eta aukera berdintasunean oinarrituta. UPV/EHUK bere ahalmena erakutsi eta berretsi egin du gizartearen zerbitzura aritzeko duen konpromisoa, egoera zinez gaizto batean.

Eskerrak eman nahi nizkioke berriki bere zereginak utzi eta Nekane Balluerka buru izan duen errektore taldeari, egoerari aurre egiteko egin duen lanagatik. Neurriak hartu ditu pertsonen osasuna eta segurtasuna bermatzeko, eta horri esker jarraitu ahal izan du gizartearentzat lanean UPV/EHUK. Gainera, bidezkoa da aitortzea unibertsitatea egoera berrira egokitzea ahalbidetu duten unibertsitateko estamentu guztien inplikazioa (gerentzia, ikastegienguzuzendaritzak...). Bereziki aipatu nahiko nituzke UPV/EHUKo Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien arloko Gerenteordetzaren lana eta erantzukizuna, denbora errekor batean egin duten ahalegin eskergagatik, ohituta geunden ingurune presentzialetik ingurune birtual orokortu batera igarotzeko. Halaber, txalotu egin nahiko nuke ere, eta publikoki aitortu, Graduak eta Graduondoko Ikasketen arloko Errektoreordetzak egin duen lan ona, gure arautegia eta jardunbideak egokitzen Alarma Egoerak sortutako beharretara.

Nolanahi ere den, egin behar izan dugun aldaketa kopuru ikaragarriak ere gorabeherak sortu ditu, eta horietako asko Aldezlearen bulegora iritsi dira, unibertsitateko kideen eskubideak bermatzen dituen organoa den aldetik. Horixe da, hain zuzen ere, txosten honen aztergaia.

Gure unibertsitate publikoaren garapenerako, funtsezkoak dira UPV/EHU osatzen dugun pertsona guztion eskubideekiko kezka eta alor honen etengabeko hobekuntza, eta guztion eskubideak bermatzea modu ezin hobea da gizarteari ematen diogun zerbitzu publikoa hobetzeko.

Aldezleak erabiltzen dituen prozedurak ezagunak dira, aurreko txostenetan deskribatu baititugu. Jo beza txosten horietara haien berri izan nahi duenak. Funtsezko ideia batzuk nabarmenduko ditut soilik. Gure aztergaiak hiru motatakoak izan ohi dira:

- Kontsultak: beren eskubideak zehazki zeintzuk diren edo nola babes daitezkeen jakin nahi duten pertsonak egiten dituzte, edo unibertsitate organo eta zerbitzuen jardun eremua ezagutu nahi dutenek. Aholkularitza lan bat da.

- Kexak eta erreklamazioak: UPV/EHUko kideek planteatzen dituzte, edo UPV/EHUkoak ez izanik interes legitimo bat dutenek, eta uste dute urratu egin direla beren eskubideak edo interes legitimoak, administrazioaren jardunagatik edo ez-egiteengatik, edo UPV/EHUren organoen, zerbitzuen, agintarien edo irakasle-ikertzaileen erabakiengatik. Aldezlearen zerbitzuaren ondorengo zeregina bi eratakoa izan daiteke: alde batetik, aldeleak esku hartzea galarazita izango balu, ohiko prozedura bideak amaitu gabe egoteagatik –adibidez–, aholkua eskaintzea eta jarraipena egitea, pertsonari azalduz bere kasuan zer urrats egin behar dituen; bestetik, gomendio bat egin diezaioke gai horretan eskumena duen unibertsitate organoari, dagokion analisi kontrajarria egin ondoren. Gomendioak hainbat motatakoak izan daitezke: adibidez, ohartarazpen bat, arautegia betetzeari buruzkoa; iradokizun bat ere izan daiteke, kasu batean aplikatu beharreko arau bat nola interpretatu adierazten duena; halaber, arau bat aldatzeko proposamen bat ere izan daiteke; edo arau edo akordio berri bat onartzeko aukera planteatu daiteke, ematen dugun zerbitzu publikoa hobetzeko edo proportzionaltasun judizio bat egiteko, babestu behar den eskubide edo interes bat bermatzeko helburuaz.
- Bitartekaritza-adiskidetze prozesuak: unibertsitateko bi kideren edo gehiagoren arteko gatazketan erabiltzen dira. Elkarrizketan oinarritutako konponbide bat bilatzen da, eta aldezlearen zeregina da bi aldeek ontzat hartuko duten akordio batera iristeko bitartekaritza lana egitea.

Aipatu berri diren hiru jarduera motez gainera, "gertakarien kontakizunak" ere iristen dira bulegora. Halakoetan, pertsona batek egoera edo gertakari baten berri ematen dio aldezleari, esku har dezan eskatu gabe –edo ekinbiderik ez hasteko eskatzen dio–.

Barkamena eskatu nahi diet beren kasua aldezleari azaldu eta haren erantzunak gogobete ez dituen pertsona guztiei, edo itxaropenak zati batean bakarrik bete dituztenei. Aldezleak erakunde gisa duen eginkizuna da unibertsitatearen interes orokorra babestea, saiatuz egoera bere osotasunean ulertzen, ñabardura guztiekin, eta kasu bakoitzean bidezkoztat jotzen den jarrera defendatzea.

Kexak eta erreklamazioak aztertzean ondorioztatzen badugu unibertsitateak ez duela zuzen jokatu, gomendio edo iradokizun bat egiten diogu dagokion unibertsitate zerbitzuari, eta jokaera aldatzeko eskatzen diogu. Batzuetan, gerta daiteke kasuan-kasuko unibertsitate zerbitzua legediaren barruan aritzea, nahiz eta, gure ustez, eskubideen zaintza hoberenak edo administrazio onaren printzipioak beste jardun mota bat eska dezakeen. Kasu horietan, gure gomendioa izan ohi da eskubideek ahalik eta ondorio zabal eta baliagarrienak izatea ahalbidetuko duen interpretazioa egitea.

Txosten honen edukiak aurreko txostenen oinarrizko egitura mantentzen du, modu ebolutibo batean aztertzeko gaien eta haien ezaugarrien bilakaera. Hasteko, 2020an bulegoan landu diren aztergaiak aipatuko ditugu, aurreko urteetakoekin alderatuta, eta horri buruzko hainbat ohar egingo ditugu. Ondoren, 2020an bulegoak izan duen beste zeregin multzo bati erreparatuko diogu, ohikoak nahiz beste eginkizun batzuei loturikoak, eta urteko txosten ekonomikoa aurkeztuko da. Txostena amaitzeko, gogoeta orokor batzuk plazaratuko ditugu. Eranskinean, 2020ko aztergai guztiak zerrendatuko dira.

Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiet agintari akademiko guztiei UPV/EHUko Aldezlearen erakundearekiko erakutsi duten harrera, prestasun eta begiruneagatik. Eskerrak eman nahi dizkiet ere kargua utzi berri duen errektoreari eta haren gobernu talde osoari, haiengana jo dudan guztietan izan duten pazientziagatik, batzuetan gai ez oso atseginak aztertu behar izan baditugu ere. Eskerrik asko Aldezlearekin izan duten errespetuagatik. Denek errespetatu dute erakunde honen independentzia, ezinbestekoa ondo funtziona dezan. Eskerrak eman nahi nizkieke, halaber, dekanoei, ikastegietako zuzendariari, sailletako zuzendariari, gerentzia taldeari eta gerente andereari, haren buru dela, eta arlo eta ataletako arduradun guztiei, eman didaten laguntzagatik. Baita Klaustroari ere, nigan jarri duen konfiantzagatik.

Bukatzeko, eskerrik beroenak eman nahi dizkiet Ana Saralegi eta Maite Estévez Aldezlearen zerbitzuko lankideei, beren pazientziagatik, eraginkortasunagatik eta erakundearekiko konpromisoagatik. Haien gabe, ondoren aipatzen den lan handiena ez zen aurrera aterako.


1. 2020ko aztergaiak

Atal honetan deskribatzen dira 2020an bulegoak landu dituen aztergaiak eta haien oinarritzko ezaugarriak. **I ERANSKINAK** biltzen du urte osoko aztergaien zerrenda.


1.1. Bulegora jo duen pertsona eta aztergai kopurua

2020an, 130 pertsonak jo dute Aldezlearen bulegora eta 142 aztergai planteatu dituzte (kontsultak, keak eta bitartekaritza eskaerak). Datu horiek aurreko txosteneko datuen oso antzekoak dira. Izan ere, 2019ko pertsona kopuru bera jo du erakundera, nahiz eta 4 aztergai gehiago planteatu dituzten (horrek adierazten du, beste batzuetan gertatu bezala, pertsona batzuek gai bat baino gehiago planteatzen dituztela). Guztira, UPV/EHUn Aldezlearen zerbitzua sortu zenetik, 1.070 lagun igaro dira bulegotik eta 1.236 kasu eta 86 'gertakarien kontakizun' planteatu dizkigute.

1. grafikoan ikus daitekeenez, azken hiru urteetan ez da datuetan aldaketa handirik egon, eta mantendu dira Aldezlearen zerbitzuaren 9 urteetan lortutako batez bestekoaren gainetik.





Hurrengo ataletan, aipatutako 142 aztergaiak hartuko ditugu erreferentziazat. Hala ere, aipatzekoa da urtean zehar, 5 pertsonak beste 5 aztergai aurkeztu dituztela bulegoan. Ez dute kontsultarik, kezarik edo bitartekaritza eskaerarik egin, eta egin dutena izan da gertakizun batzuen berri ematea, komenigarria iruditu baitzaie, gertakizunok unibertsitatearentzat garrantzitsuak izanik, aldezia jakinaren gainean jartzea. 2. grafikoak adierazten du azken urteetan jasotako 'gertakarien kontakizun' kopurua.



1.2. Bulegora jo duten pertsonen generoa



Aldezlearengana jo duten 130 pertsonen artetik, 73 emakumeak ziren eta 57 gizonak. Emakumeek planteatu dituzte 83 aztergai eta gizonek 59. Hori horrela, 3. grafikoan, bulegoaren bederatzi urteko ibilbideari dagozkion maiztasunak ikus daitezke; 4. grafikoan, ehunekoak.



4. grafikoa ikus daitekeenez, lehenengo bi urteetan izan ezik, zerbitzura jo duten pertsonen sexuen arteko proportzioa hurbil dago UPV/EHU sexuen banaketak duen proportziotik (% 45,9 gizonak eta % 54,1 emakumeak).

1.3. Bulegora jo duten pertsonen erabilitako hizkuntza

142 aztergaietatik, 49 euskaraz planteatu dira; 93, gaztelaniaz.




2020an, aztergaien % 34,5 euskaraz planteatu eta ebatzi dira. 6. grafikoak adierazten du hizkuntza ofizial bakoitzean planteatu diren aztergaien urteko ehunekoa. Batez beste, 2012tik, aldezlearengana jo duten pertsonen % 24,2k euskara erabili dute. Azken lau urteetan, ehuneko hori % 32,8ra igo da.


1.4. Aztergaiak kolektiboen arabera: Ikasleak, Irakasle-ikertzaileak, AZP eta "Beste batzuk"

Kolektiboen arabera, 2020an, ikasleek 67 aztergai planteatu dituzte; irakasle-ikertzaileek, 43; AZPko langileek, 12; eta unibertsitatetik kanpoko pertsonak, 20 ("Beste batzuk" kategoria). Hala, gora egin du "Beste batzuk" kolektiboko pertsonen aztergai kopuruak, batik bat lotua unibertsitate sarbidearekin, plaza deialdiekin eta ordezkapen poltsekin.


7. grafikoak aurreko urteekin alderatzen ditu datuak. Ikus daitekeenez, 2020an gora egin du bai ikasleek bai "Beste batzuk" kategoriak mahaigaineratutako aztergai kopuruak; aldiz, behera egin dute irakasle-ikertzaileen eta AZPko langileen aztergaiak.



8. grafikoak ehunekotan ematen ditu unibertsitate kolektiboen datuak (irakasle-ikertzaileak, AZP eta ikasleak). 2020an, aztergaien erdiak baino gehiago ikasleek planteatu dituzte, eta kolektibo honek pisu handiena izan duen urteetako bat izan da.



2020an ikasleek planteatu dituzten 67 aztergaien artetik, 53 graduiko ikasleenak izan dira, eta 14, graduondoko ikasleenak (9. grafikoa).




2020an, graduiko ikasleek mahaigaineratu duten kasu kopuruak eten egin du aurreko bi urteetako jaitsiera eta gainditu egin du erakundearen bederatzi urteko ibilbidearen batez bestekoa. Graduondoko ikasleen aztergai kopuruak behera egin du aurreko urteari dagokionez, nahiz eta batez bestekoaren gainetik ere kokatu den.


Batez beste, aldezlearengana jotzen duen bost ikasleetatik bat graduiko ikasketak egiten ari da.

1.5. Aztergai kopurua campusen arabera

Bulegora iritsi diren unibertsitateko kideen 122 aztergaietatik, 45 iritsi dira Gipuzkoako Campusetik; 56, Bizkaiko Campusetik; eta 21, Arabako Campusetik (dagoeneko esan dugunez, beste 20 aztergai iritsi dira UPV/EHUkoak ez diren pertsonengandik). Aurreko urteekin alderatuta (10. grafikoa), ikus dezakegu beherantz jarraitzen duela Bizkaiko Campuseko aztergaia kopuruak eta gorantz, Arabako Campusekoak. Gipuzkoan, eskaera kopurua aurreko urtekoaren parekoa izan da.



11. grafikoak ehunekotan ematen ditu datuak. Campusen arabera aztergai kopurua hurbil dago campus bakoitzari dagokion pisu errealetik. Bizkaia da aztergai gehien planteatzen dituen, ondoren Gipuzkoa eta azkenik, Araba.



1.6. Aztergai kopurua ikastegien eta zerbitzuen arabera

1. taulak zerrendatzen ditu aldezlearengana laguntza eske jo duten ikastegiak eta zerbitzuak. Aztergai mota guztiak bildu dira: keaxak (baietsiak izan ala ez), kontsultak eta bitartekaritza eskaerak.

Komeni da taulako datuak erlatibizatzea, aztergaien jatorria besterik ez dutelako adierazten, eta ezin daiteke beraz beste mota bateko ondorioz atera. Oro har, aztergai gehiago sortu ohi da tamaina handiagoko ikastegietan, eta badu zerikusirik ere gaiak pertsona multzo bati eragiteak. Hori dela eta, aldatu egin daitezke urte batetik bestera ikastegi edo zerbitzu baten estatistikak eta datuak, hainbat faktorerengatik.

1. taula. Aztergaiak planteatu dituzten ikastegiak eta zerbitzuak

Ikastegiak eta zerbitzuak	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Arabako Biblioteka	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Arkitektura GET	4	6	4	2	-	-	6	3	1
Arte Ederren Fakultatea	1	5	1	4	2	1	2	5	4
Zientzia eta Teknologia Fakultatea	3	6	11	7	4	7	7	8	8
Berrikuntzaren, GKren eta Kulturgintzaren arloko Errekt.	-	-	-	1	-	1	1	-	-
Bilboko Hezkuntza Fakultatea	5	3	4	4	7	7	4	6	2
Bilboko Merkataritza Ganberako UE	-	-	-	2	-	1	-	-	-
Bizkaiko Biblioteka	-	-	-	-	-	-	-	2	-
Campuseko Gerenteordetza	-	2	-	-	-	-	2	3	3
Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	5	24	5	3	5	13	11	10	11
Enplegu Gunea	-	-	-	-	-	1	1	-	-
Errektoreordetza	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Euskararen eta EPren arloko Errekt.	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua	-	-	-	-	1	1	-	-	-
Farmazia Fakultatea	2	4	4	1	2	2	1	2	6
Gasteizko Erizaintzako UE	-	1	1	-	2	2	1	-	-
Gasteizko Ingeniaritza Eskola	2	4	6	6	2	2	1	1	1
Gerentzia	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Gipuzkoako Biblioteka	-	1	-	4	2	1	2	-	1
Gipuzkoako Esperientzia Gelak	-	-	1	-	7	-	1	-	-
Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola	2	4	2	1	2	10	4	9	10
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	6	8	17	9	2	6	5	1	6
Graduko eta Graduondoko Ikasketen arloko Errekt.	-	1	-	-	-	1	-	-	-
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea	1	7	10	11	9	21	7	13	15
Hezkuntza eta Kirol Fakultatea	3	1	4	6	3	4	7	1	2
Idazkaritza Nagusia	-	1	2	1	-	-	-	-	1
Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko Errekt.	-	-	-	-	-	-	-	2	1
Ikasleen Kontseilua	2	3	1	1	-	-	-	-	-
Joxe Mari Korta eraikina	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Doktorego Eskola	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Bilboko Ingeniaritza Eskola	15	13	13	12	6	11	14	6	10
Ikerketaren arloko Errektoreordetza	-	-	-	-	1	-	-	-	-
IKT Gerenteordetza	3	-	-	1	2	2	1	1	-
Ikuskaritza Zerbitzua	-	-	-	-	1	-	-	-	-
IMHko Ingeniaritza Dualaren UE	-	-	-	4	6	7	-	1	1
Informatika Fakultatea	-	2	4	2	-	-	3	4	3
Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetza	-	-	-	-	-	-	1	-	-
Kimika Fakultatea	-	-	1	-	-	-	1	4	-
Kirol Zerbitzua	-	-	-	-	1	1	-	1	-
Koordinazioaren eta NHen arloko Errekt.	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea	1	4	1	-	1	-	-	1	-
Letren Fakultatea	2	6	16	7	3	3	7	7	10
Master eta Doktorego Eskola	-	1	1	5	6	4	2	10	-
Materialen Fisika Zentroa	-	-	-	-	1	-	-	-	-
Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea	13	6	17	12	19	15	17	11	11
Psikologia Fakultatea	5	4	1	6	9	10	5	1	4
Pertsonaleko Gerenteordetza	-	-	1	2	-	-	-	1	1
Prebentzio Zerbitzua	-	-	-	-	-	1	-	-	-
Zuzenbide Fakultatea	6	7	9	9	5	9	6	10	8
Beste batzuk ***	15	16	26	14	8	20	18	13	20
Guztira	97	140*	164	139	119**	164	138	138	142


* Hiru aztergai ikastegi edo zerbitzu bat baino gehiagoko pertsonen planteatu dituzte. Horregatik, zutabe honen guztizkoa 140 da, 137 izan ordez.

** Bi aztergai ikastegi edo zerbitzu bat baino gehiagoko pertsonen planteatu dituzte. Beraz, guztizkoa 119 da, 117 izan ordez.

***UPV/EHUtik kanpoko pertsonen planteatutako aztergaiak dira.

1.7. Aztergai motak

Aztergai motei dagokienez, 2020an jaso ditugu 103 kontsulta eta 39 kexa. 12. grafikoak aurreko urteekin alderatzen ditu datuak.



2019ra arte, beherantz doaz kexa kopuruak eta bitartekaritza eskaerak; aldiz, kontsultek goranzko joera dute. 2020an, eten egiten da joera hori eta lehen aldiz handitu egiten da kexa kopurua eta pitin bat txikitu, kontsultena.


Aurreko txostenetan esan izan dugun moduan, kontsulta bihurtu da erabilgarritasun handiko sistema bat iristen zaizkigun kasu asko bideratzeko. Prozedura arin bat da, analisi, ikerketa eta kontraste azkarrak eskatzen dituena, irtenbide egoki bat bilatzeko planteatzen zaigun gaiarentzat. Horrela, kexaren prozedura –burokratizatuagoa– uzten da fase dokumental landuagoak behar dituzten egoeretarako.

1.7.1. Kolektiboek planteatutako aztergai motak


13., 14. eta 15. grafikoek adierazten dute aztergai mota bakoitzaren (kontsulta, kexa eta bitartekaritza eskaera, hurrenez hurren) bilakaera, kolektiboka.

13. grafikoan ikus daitekeenez, kontsulta kopurua haziz joan da oro har azken urteetan talde guztietan; aldiz, 2020an, eten egin da igoera hori irakasle-ikertzaile eta AZPko langileen artean, 2019an kopururik altuenera (zerbitzua martxan jarri zenetik) iritsi ondoren. Ikasleei dagokienez, 2020an kontsulta kopururik altuenera heldu dira 2017ko gailurraren ondoren. Azkenik, "Beste batzuk" kolektiboak ere igoera txiki bat izan du.


Ikasleen kontsultetan pisu handiena duten gaiak dira ikaskuntzaren ebaluazioa, matrikula, matrikula baliogabetzea eta kredituen aitortza.



Kexei dagokienez (ikus 14. grafikoa), 2020an, aurreko urtearekin alderatuta, gora egin du kexa kopuruak ikasleen artean eta "Beste batzuk" kategorian; aldiz, beherakada bat izan da AZPko langileen eta irakasle-ikertzaileen artean. Kexek bederatzi urteetan izan duten bilakaera aztertuz gero, ikus daiteke joera orokorra beheranzkoa dela, gorabeherak izan diren arren. Unibertsitateko edozein kidek du aukera kexa aurkezteko, ados ez dagoenean unibertsitate organo batek hartu duen erabaki batekin, baldin eta uste badu erabaki horrek bere eskubide bat urratzen duela edo bere askatasuna arrazoi edo neurririk gabe murrizten duela.




Bitartekaritzari dagokionez, 2020an pertsona batzuek aldeleari eskatu badiote ere bitartekaritza lana egiteko unibertsitateko organoen aurrean (hautapen prozesuetako ebaluazio batzordeak, kalifikazioak berrikusteko prozesuetako erreklamazio batzordeak...), ez da horrelako esku hartzerik onartu, gai arautuak zirelako eta aldeek ezin zutelako beren kabuz jokatu. Hala, kasu horiek izapidetu dira kexa edo kontsulta gisa, eta dagozkien prozedurak erabili ditugu.




Oharra: 2012-2015 aldian, bat datoz lerro berdea (AZP) lerro horia ("Beste batzuk").

1.7.2. Emakumeek eta gizonen planteatutako aztergai motak


Atal honetan, generoaren arabera erreparatuko diegu aztergaiei. Jada esan dugunez, 2020an, 57 gizonen eta 73 emakumeen jo dute alde leaerengana, eta 59 eta 83 aztergai planteatu dituzte, hurrenez hurren. 16. grafikoak erakusten du urte bakoitzean eginiko kontsulta kopurua. Ikus daitekeenez, goranzko joera baten barruan, azken urtean behera egin dute emakumeen kontsultek eta gora gizonen planteatutakoek. Kexei dagokienez (17. grafikoa), eten egin da gizonen kexa kopuruaren beheranzko joera eta handitu emakumeen kexa kopurua. Gizonen planteatutako aztergaien % 25,4 kexak dira. Emakumeen kasuan, ehuneko hori % 28,9 da. Beraz, ez dago alde handiegirik sexu bakoitzak planteatutako kexa kopuruaren artean. Azkenik, bitartekaritza eskaerei dagokienez (18. grafikoa), gorabeherak badaude ere, bilakaerak erakusten du oro har gizonen eta emakumeen kopuru berdintsuetan daudela.



17. grafikoa. Emakumeen eta gizonen kexak



18. grafikoa. Emakumeen eta gizonen bitartekaritza eskaerak



1.8. Kolektibo bakoitzak planteatutako gaiak

Kolektiboek zer arazo mota planteatzen dizkiguten zehatzago jakiteko (arazo mota guztiak, ez bakarrik kexak), lau taula osatu ditugu (2., 3., 4. eta 5. taulak), ikasleei, irakasle-ikertzaileei, AZPko langileei eta "Beste batzuk" kategoriari dagozkienak, hurrenez hurren.

Taulak ordenatuta daude kategorien edo gai espezifikoaren arabera, aurreko urteetako txostenetan erabilitako irizpide berberaz. Edonola ere, urtez urte metatutako esperientziaz baliatuta, txosten honetan aldaketa txikiren bat sartu dugu kategorien sisteman; esaterako, bederatzi urteetan ia maiztasunik izan ez duten kategoriak kendu eta zegozkien kasuak "Bestelakoak" kategorian sartu ditugu. Horregatik dago desberdintasun txikiren bat taula hauetako urteko datuen eta aurreko txostenetan aurkeztutakoaren artean.

Tauletan, hondo urdinez nabarmendu ditugu gutxienez sei urtez errepikatu diren gaiak. Bestetik, parentesien artean adierazten da zenbat kasutan esku hartu duen aldezeak –edozein izanik aztergaia– erantzunik jaso ez delako dagokion organotik. Kasu hauetan, gaia prozedura kontuekin gurutzatzen da (hala nola idatzi edo errekurtsio bati epean ez erantzutea), eta horrelakoetan aztergaia kategoria nagusiaren barnean sartzen da.

2. taulak erakusten digu zeintzuk diren ikasleek 2020an planteatu dituzten gai nagusiak:

1. **"Ikasleen ebaluazioa"**. Ebaluazio prozesuak –oro har– eta kalifikazioak berrikusteko prozedura –bereziki– dira, alde handiz, ikasleak gehien kezkatzen dituen gaiak, baita aztergai kopuru handienaren jatorria ere (kexak edo kontsultak). Zorionez, gure unibertsitateko ikasleen ebaluaziorako arautegiak gero eta zehatzago eta argiago arautzen du gai hau, eta ikasleen berdintasun eta zuzentasunerako oinarritzko berme ez ezik, kontsulta eta erreferentzia tresna baliotsua ere bada ikasleen ebaluazioan eta orientazioan zeresana duten organoentzat.

Guztira, ikasleek 20 aztergai planteatu dituzte beren ikaste prozesuaren ebaluazioari lotuta: 7 kexa eta 13 kontsulta. Pisu handiena duen gaia izanik, xeheago azalduko ditugu jarraian:

- Hiru ikaslek beren ezinegona adierazi zuten ez zirelako bete irakaskuntza gidan eta webgunean argitaratutako ebaluazio irizpideak.

- Bi lagun ez zeuden ados Practicumeko kalifikazioarekin, eta beste batek kexa bat aurkeztu zuen praktiketako tutorearekin izandako arazoengatik.
- Bi ikaslek beren kexa adierazi zuten talde osoari jarritako suspentso orokorrarengatik, susmoak zeudelako iruzur egin zela on-line modalitatean eginiko proban.
- Pertsona batek erreklamazio bat aurkeztu zuen on-line modalitatean eginiko irakasgai baten ebaluazioaren aurka, taldean izan zen suspentso kopuru handiagatik, argudiotzat erabilita proba, test motakoa, oso-oso zaila izan zela, erantzuteko denbora eskasagatik eta galderen anbiguotasun eta zehaztasun faltagatik.
- Ikasle batek, GRALeko tutoreak lagunduta, bere desadostasuna adierazi zuen epaimahaiak bere lana ebaluatzeko moduarekin, gainditu gabetzat jo zuelako plagioa egin zuelakoan.
- Pertsona batek kontsulta bat egin zuen konpentsazio bidezko ebaluazio prozesuari buruz.
- Ikasle batek bere kexa adierazi zuen ezin izan zuelako bere titulua eskatu, espedientean kalifikazioak falta zirelako.
- Hiru lagunek, kontsulta batean, galdetu zuten ea eskubiderik bazuten azterketa on-line egiteko. Erasmus programaren egonaldi batean zeuden eta pandemia dela eta arazoak zituzten mugitzeko.
- Bost ikasle ez zeuden ados ebaluazio proban izan zuten kalifikazioarekin, eta galdetu zuten ea aukerarik bazuten proba berrikusteko, eta nola egin behar zuten hori.

Txosten honen 4. atalean, gai garrantzitsuenetan sakonduko dugu, eta ondorioak eta gomendioak aipatuko ditugu.

2. **"Kredituak aitortzea"**. 2020an, ikasleen 5 eskaera jaso ditugu, kredituak baliozkotzeari, aitortzeari eta transferitzeari buruzkoak. Guztietan, eskatzailea ez zegoen ados Batzorde Akademikoaren erabakiarekin; zehazki, eskatu ziren kreditu guztiak ez aitortzeagatik. Alor hau araututa dago gradu ikasketetako kredituak aitortzeari eta transferitzeari buruzko arautegian, Gobernu Kontseiluak onartua 2012ko maiatzaren 16an. Komeni da ikasleek eskaerak egitean arautegia ezagutzea, eta batzorde eta organo arduradunek haien tramitazioa bultzatzea, ikasleek jakin dezaten zehazki zer ikasi behar duten lauhilekoan aurrera egin aurretik.

3. **"Matrikula"**. 2020an, 4 lagun jo dute aldezearengana irakasgai bateko matrikularekin zerikusia duten arazoak azaltzeko.
 - Ikasle batek kexa bat aurkeztu zuen ezin izan zuelako matrikulatu berak nahi zuen taldean, automatrikula egitean aplikazioak ez ziolako aukera hori eman. Ikasle batek soil-soilik aukera dezake taldea automatrikula egiteko egunean eta orduan eskaintzen zaizkion taldeen artetik, eta hori izan liteke nahi zuen taldean matrikulatu ezin izateko arrazoia. Hala ere, arrazoia ez zen izan hori: akats bat egon zen automatrikula prozesuan eta ikasle talde handi bati eragin zion. Ikastegiak arazoa konpondu zuen akatsaren berri izan bezain pronto.
 - Pertsona bat ez zegoen ados ikastegiaren jarrerarekin, uko egin baitzion hautazko hainbat irakasgaitan eginiko matrikula aldatzeari. Hala ere, kontuan izan behar da matrikula bakarra dela ikasturte osorako, eta hura aldatzea salbuespentzat hartzen dela ikaslearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik aldaketa egitea beharrezkoa den kasuetarako. Kasu honetan, automatrikula egitean arrazoirik ez zegoenez hautazko irakasgaien aldaketa justifikatzeko, ezetsi egin zuen eskaera ikastegiak.
 - Ikasle batek planteatu zuen ezen, azken urteko matrikula akats baten ondorioz, ikasketak amaitu zituela hautazko kreditu gehiegirekin eta nahitaezko irakasgai zegozkien kreditu gutxiegirekin. Ikasitako kredituetan oinarritutako unibertsitate titulua lortzea ahalbidetuko zion konponbide bat aurkitu nahi bazuen ere, edozein irtenbide baldintza bat bete behar zuen: gaindituta edo aitortuta edukitzea titulazioan beharrezko zen nahitaezko kredituen kopurua.
 - Ikasle batek galdetu zuen ea nahitaezkoa zen berriro matrikulatzea Erasmus programan ikasitako eta oraindik kalifikaziorik jaso gabeko irakasgaietan, eta ba ote zuen eskubiderik prezio publikoak itzul ziezazkieten, gero kreditu horiek aitortzen bazitzaizkion. Kudeaketa akademikoari buruzko arautegiak ikasleak behartzen ditu ikasturte bakoitzean matrikulatzea aurreko ikasturteetatik gainditzeke dituzten irakasgai guztietan. Dena dela, onartu egiten du ere ikasleak, kredituak aitortzen zaizkionean, ordaindutako prezio publikoak berreskuratzeke duen eskubidea.
4. **"Matrikula baliogabetzea"**. Atal honen barruan sartu ditugu matrikula baliogabetzeak sortutako arazoa planteatu duten aztergai guztiak. Baliogabetzea izan daiteke ikasleak eskatuta edo unibertsitateak bere kabuz erabakitakoa. 5 eskaera jaso ditugu: 4 kontsulta eta 1 kexa. Zehazki:

- Alde batetik, 3 pertsonak galdetu zuten irakasgai batzuetan matrikula baliogabetzeko eta zegozkien prezio publikoak berreskuratzeko zuten eskubideaz, ezin zutelako ikasten jarraitu, hainbat arrazoiengatik: hautazko kreditu gehiegitan matrikulatu zirelako (kredituak aitortu zain zeuden mugikortasun programetan), osasun arazoak sortu zitzaizkielako edo kontziliazio arazoak zituztelako (alarma egoeran haur eskolak eta ikastetxeak ixtean).

Oro har, kontuan izan behar da matrikula baliogabetzea eskatu behar dela legeak ezartzen dituen epeetan eta forman, matrikula osoa baliogabetzen dela (ezin da zati bat bakarrik baliogabetu, edo irakasgai solteak) eta ezin direla inola ere ordaindutako prezio publikoak berreskuratu. Soilik ikasturtea amaitzea eragozten duten salbuespen kasuetan, gerora gertatutakoak eta behar bezala justifikatutakoak, eskatu ahal izango zaio ordaindutakoa itzultzeko Gradu eta Graduondoko Ikasketen arloko Errektoreordetzari. Salbuespenezko egoera horiek akreditatuz gero, eskaera egin denean lehen lauhilekoa amaitu ondoren, soilik itzuliko da bigarren lauhilekoko irakasgai dagokien zenbatekoa; eskaera egin denean bigarren lauhilekoko amaitu ondoren, ez da inolako kopururik itzuliko.

- Bestetik, UPV/EHUn matrikulatutako bi ikaslek (bata gradu ikasketetan eta bestea graduondokoetan) aldezlearengana jo zuten kaltetu gisa: behin ikasturtea hasita (kasu batean, lehen lauhilekoa nahiko aurreratua zegoela, irakasgaietako bat jada ebaluatua), unibertsitateak bere kabuz erabaki zuen matrikula baliogabetzea, titulazio baldintzak ez betetzeagatik.

UPV/EHUko gradu eta master ikasketen arautegiak dio matrikulak behin-behinean onartuko direla, eta soil-soilik izango dutela erabateko balioa egiaztatzen denean titulaziorako baldintza guztiak betetzen direla. Matrikula onartu eta ondorio guztietarako irmotzat hartuko da lau hilabete igarotzen direnean matrikula egunetik, baldin eta dagokion dekanotzak, ikastegi zuzendaritzak edo master eta doktorego atalak kontrako erabakirik jakinarazten ez badu. Edonola ere, gure iritzian, nahiz eta unibertsitateak lau hilabete izan matrikulan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, izapide hori ahalik eta arinen egin beharko litzateke, kalterik ez eragiteko ikasleek nahi duten titulazioan matrikulatzeko aukerei, unibertsitate honetan edo beste batean. Titulazioan eskatutako baldintzaren bat ez betetzeagatik matrikula baliogabetzeak, ikasleak jada galdu duenean beste titulazio batzuetan edo beste unibertsitate batzuetan plaza erreserbatzeko eskubidea, nahiz eta arautegian jasota egon, kalte nabarmena eragiten du eta ahal den guztia egin behar da hori saihesteko.

2. taula. Ikasleek planteatutako aztergaiak

Gaia	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Arautegia aplikatzeko modua	-	6	-	-	-	-	1	-	-
Arautegia ez betetzea	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Arazoak agintariekin	1	-	2	-	-	-	-	-	-
Arazoak ikaskideekin	-	-	-	-	6	-	-	1	-
Bekak	-	3 (1)	3	4 (1)	1	4	4	6	2
Datuak babestea	1	-	-	1	-	-	-	1	-
Diziplina araubidea	1	-	1	-	1	-	-	-	1
Doktorego tesia	2	-	1	5	2	-	1	2	1
Ebaluazioa konpentsazio bidez	6	4	3	5	3 (1)	-	1	-	-
Espedientea lekuz aldatzea	-	-	-	-	-	2	1	-	-
Etika akademikoa	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Euskarari arreta	-	-	-	-	1	1	-	-	-
Ezgaitasunaren arreta	-	-	-	-	1	1	-	-	-
Familia kontziliazioa	-	-	-	-	1	-	-	-	1
Genero indarkeria	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Gradu/Master amaierako lanak	1	-	4	2	1	3	3	2	3
Gradura egokitzea	2	3	3	-	-	-	-	-	-
Greba	-	-	2	-	-	-	-	-	1
Ikasketetarako sarbidea	5 (1)	1 (1)	-	1	1	2	2	-	4
Ikaskideen portaera	-	1	1	-	1	2	1	-	-
Ikasleen ebaluazioa	7 (1)	10	11	16	14	33	8	13	20
Ikasleen ordezkaritza	-	2	3	1	1	-	1	1	1
Ikasleentzako zerbitzuak	-	-	-	-	-	-	2	-	-
Ikastegi zuzendaritzaren portaera	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Informazioa eskuratzeko eskubidea	-	-	-	-	-	-	-	1	2
Intimitaterako eskubidea	-	1	-	-	-	-	1	-	-
Irakaskuntza euskaraz	-	-	2	-	-	-	1	-	-
Irakaskuntzaren kudeaketa	-	3	10	15	7	9	4	5	5
Irakasleen portaera	1	4	4	2	1	2	5	4	2
Jendearentzako arreta	-	3	-	2	-	-	-	2	1(1)
Kanpoko praktikak	-	2	3	2	2	2	3	1	1
Kredituak aitortzea	-	-	-	-	-	-	-	-	5
Kredituak baliozkotzea eta aitortzea	-	6 (1)	1	1	2	4	2	2	-
Lan baldintzak	-	-	-	-	-	3	-	-	-
Matrikula	1	4	5	3	4	7	6	7	4
Matrikula baliogabetzea	-	2	-	1	-	-	1	1	3
Mugikortasuna	-	-	2	1	-	-	4	4	1
Ondare erantzukizuna	-	-	-	-	-	1	-	-	-
Permanentzia arautegia	-	-	-	-	-	-	2	3	2
Presoentzako arreta	-	-	-	1	1 (1)	-	-	-	1
Prezio publikoak	3 (1)	2	1	2	2	2	2	1	1
Tituluak eta egiaztagirak	-	1	1 (1)	2	-	1	1	-	2
Tratu berdintasuna	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Tratu diskriminatzailea	-	-	1	-	-	1	-	-	-
Zerbitzuen portaera	-	2	-	-	-	-	-	-	-
Bestelakoak	2	2	1	-	1	1	-	2	1
Guztira	33 (3)	62 (3)	68 (1)	67 (1)	54 (2)	81 (0)	57 (0)	59 (0)	67 (1)

Irakasle-ikertzaileen kasuan (3. taula), gai ohikoenak izan dira unibertsitate sailletako elkarbizitza arazoak eta plazetarako sarbidea/promozioa. 2020an, berriro ere, eskaera gehien izan dituzten gaiak izan dira "Ordezkapen plazak eta poltsak", "Arazoak lankideekin" eta "Irakaskuntza esleitzea". Epigrafe honetan sartu behar dugu ere doktore titulua duen irakasle baten kexa, aurrerago xeheago azalduko duguna, ordezkapen poltsetatik kanpo utzi zutena graduaren baliokidea den titulu bat ez aurkezteagatik.

Plazetarako sarbidea gaiarekin lotutako kasuetan, saileko kideren bat ez zegoen ados plaza hutsak betetzeko hartutako erabakiarekin, bere interesen kalterako zelakoan, edo irregulartasunen bat salatzen zuen kontratuen adjudikazioan, edota bere plazaren lanpostu zerrendaren aldaketaren tramitazioan.

Irakaskuntza esleitzea atalean jaso diren kontsultek agerian uzten dute sail batzuetan sortzen diren zailtasunak irakasgai guztien irakaslana esleitzeari buruzko azken erabakia hartzeko orduan. Saileko kideen arteko desadostasun eta zalantza arrazoi nagusia datza irakasle batek baino gehiagok irakasgai bat eskatzen dutenean aplikatu behar diren irizpideen interpretazioan. Kontsultagai izan da ere irakasleei irakaslana banatzea atxikita dauden ikastegian ez beste batean, baita alde zuzenetik adostutako banaketa arrazoi justifikatuengatik aldatzeko eskubidea ere. UPV/EHUko irakasle-ikertzaileen artean irakaskuntza esleitzeko erregelamendu berriak, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren 2020ko abenduaren 17ko erabaki bidez onartu eta 2021eko otsailaren 3ko EHAAn argitaratu zenak, kontsulta xede izan diren gai asko argitzen ditu.

Urrutiko irakaskuntzan aritzeko baliabide telematikoak erabiltzeko beharraren ondorioz, 2020an gora egin du irakasle-ikertzaileen kontsulta eta kexa kopuruak, kezkak on-line klaseak ematean **intimitatea eta norberaren irudia babesteko eskubideagatik** eta/edo datu pertsonalak norberaren baimenik gabe zabaltzeagatik. Txostenaren 4. atalak aztergai hauei emandako erantzuna biltzen du.

3. taula. Irakasle-ikertzaileen aztergaiak

Gaia	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Arautegia aplikatzeko modua	-	4	2	-	-	2	2	3	-
Arazoak agintariekin	1	-	1	-	-	-	-	1	-
Arazoak lankideekin	4	17	13	5	3	3	6	2	5
Azpiegiturak	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Barne kontrola	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Bateraezintasunak	-	-	-	-	-	1	2	1	-
Bekak	-	-	-	1 (1)	1	2	-	-	-
Burokrazia	-	-	-	-	2	-	-	-	-
Datuak babestea	-	-	-	1	-	-	1	2	3
Diziplina araubidea	-	-	-	-	-	2	2	-	3
Doktorego tesiak	-	-	3 (1)	1	-	2	1	3	-
Ebaluazio epaimahaiak hautatzea	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Erosketak	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Errektoretzaren portaera	-	-	1	1	-	-	-	-	-
Erretiroa	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Etika akademikoa	1	-	2(1)	1	-	-	2	3	-
Euskarari arreta	-	-	-	-	1	-	-	-	-
Familia kontziliazioa	1	-	-	1	-	1	1	-	1
GAUREn arazoak	1	1	-	-	-	-	-	1	-
Gobernu eta ordezkaritza organoak	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Gradura egokitzea	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Greba	-	-	-	-	1	-	-	-	-
Hauteskunde araubidea	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Hierarkian gorago dagoenaren portaera	-	-	-	-	2	-	-	-	-
Ikasketetarako sarbidea	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Ikasleen ebaluazioa	-	2 (1)	2 (1)	-	3	3	3	1	1
Ikasleen portaera	1	3	2	2	2	2	2	2	-
Ikastegi zuzendaritzaren portaera	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Ikerketa proiektuak	1	1	-	-	-	-	-	1	-
Informatika aplikazioen funtzionamendua	-	-	-	-	-	-	1	5	1
Intimitate, ohore eta norberaren irudirako eskubidea	-	-	-	-	-	-	-	-	3
Irakaskuntza betebeharrak	-	-	-	-	-	-	-	-	2
Irakaskuntza esleitzea	5	3	6	4 (1)	8 (2)	5	7 (1)	5	4
Irakaskuntza euskaraz	-	-	-	-	-	-	1	-	-
Irakaskuntzaren ebaluazioa	-	-	-	1	3 (1)	2	-	2	3
Irakaskuntzaren kudeaketa	-	-	2	-	-	1	1	1	1
Irakasleen Hobekuntzarako Plana	-	-	2	-	-	1(1)	-	-	-
Irakasleen portaera	-	3	-	-	-	-	2	2	1
JAP/Kredituak aitortzea	2 (1)	2	-	-	2	-	-	-	1
Jazarpena/jazarpen portaerak	8	2 (1)	2	2	1	-	-	-	-
Jendearentzako arreta	-	-	-	-	-	1	1	-	-
Kalte-ordaina zerbitzuengatik	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Katedra askatasuna	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Lan baldintzak	3	2	3	2	6	10 (1)	1	3 (1)	2
Lanen ebaluazio etikoa	-	-	-	-	1	-	-	-	-
Lizentziak eta baimenak	-	-	-	-	-	-	1	-	1
Matrikula baliogabetzea	-	-	-	-	-	1	1	-	-
Ordezkaritza organoaren portaera	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Osagarri gehigarriak	1	2	1	3	-	3	-	-	-
PIF ordainsariak	-	1	2	-	-	-	-	-	-
Plazak/Ordezkapen poltsak	4 (1)	5 (1)	4 (3)	7 (1)	2	8	6	5	6
Presoentzako arreta	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Prezio publikoak	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Saileko zuzendariaren portaera	-	-	2	2	1	-	-	-	-
Tituluak eta egiaztagiriak	-	-	-	-	1	-	-	-	-
Tratu berdintasuna	-	-	1	-	-	-	2	1	2
Zerbitzuen portaera	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Bestelakoak	3	1	3	4	1	1	2	2	1
Guztira	40 (2)	50 (3)	56 (6)	42 (3)	41 (3)	51 (2)	48 (1)	48(1)	43(0)

AZPko langileei dagokienez (4. taula), beste urtebetez kolektibo hau gehien kezkatzen duen gaia izan da **plazetarako sarbidea** eta **ordezkapen poltsen** osaera eta deialdia. Halaber, ikasleen ebaluazioari buruzko hainbat kontsulta ere helarazi dizkigute, emaitza anomalo kopuru handi bat izan duen ebaluazio proba baten inguruan, unibertsitate arautegiak ikasleei ematen dien bermeei eta proba grabatzea eskatzeko eskubideari buruz galdezka.

Kolektibo honetako beste kide batzuek bulegora jo dute ere gai hauen inguruan galdezka: familian osasun arazoak izanez gero baimenak eta lizentziak eskatzeko eskubidea, zer egin betetzen ari den kargu edo lanpostuagatik ezagutzen den informazio pertsonalaren eta familiarraren konfidentziasuna eta sekretua urratzen direnean, edo norberaren irudia babesteko eskubidea urratzen denean.

4. taula. AZPko langileen aztergaiak

Gaia	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Arautegia aplikatzeko modua	-	-	1	-	-	-	2	1	1
Arautegia ez betetzea	-	1	-	1	-	-	-	-	-
Arazoak agintariekin	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Arazoak lankideekin	-	1	-	-	1	-	-	-	-
Azpiegiturak	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Bateraezintasunak	-	-	-	-	-	-	1	-	-
Burokrazia	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Datuak babestea	-	-	-	-	-	1	1	1	-
Diziplina araubidea	-	-	-	-	1	-	-	-	-
Errektoretzaren portaera	-	2 (1)	-	-	-	-	-	-	-
Erretiroa	-	1	-	1 (1)	-	-	-	-	-
Hierarkian gorago dagoenaren portaera	-	-	2	1	2	1	2	1	1
Ikasleen ebaluazioa	-	-	-	-	-	-	-	-	2
Ikasleen portaera	-	-	-	1	-	-	1	-	-
Informazioa eskuratzeko eskubidea	2	-	2	2 (2)	-	-	-	-	1(1)
Intimitate, ohore eta norberaren irudirako eskubidea	-	-	-	-	-	-	1	-	2
Irakaskuntza euskaraz	-	-	-	-	1	-	-	-	-
Irakasleen portaera	-	-	-	-	1	-	-	-	-
Jazarpena/Jazarpen portaerak	1	-	1	-	-	-	-	-	-
Lan baldintzak	4	2	2 (1)	5 (1)	6 (1)	3 (1)	4	4(1)	1
Lankideen portaera	-	-	-	-	-	4	-	-	-
Merezimenduen ebaluazioa	2	-	-	1 (1)	-	1	-	-	-
Plazak/Poltsak/Lekualdaketa lehiaketak	2	1	3 (1)	2	-	3(1)	2	6	3
Prezio publikoak	-	-	-	-	1	-	-	-	-
Saileko zuzendariaren portaera	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Tituluak eta egiaztagiriak	-	-	-	-	-	-	1	1	-
Bestelakoak	-	1	1	1	1	-	-	3	1
Guztira	11 (0)	9 (1)	14 (2)	16 (5)	14 (1)	12 (2)	15 (0)	18 (1)	12 (1)

Azkenik, "Beste batzuk" kategorian (5. taula), 2020an ia kasu guztien gaiak izan dira "Ikasketetarako sarbidea" eta "Plazak/Ordezkapen poltsak".

"**Ikasketetarako sarbidea**" gaiaren barruan sartzen dira UPV/EHUren ikasketetan onartua izatearekin lotutako arazoak planteatzen dituzten aztergai guztiak. Besteak beste, graduiko ikasketetan izena emateko zailtasunak, interesdunarekin zerikusirik ez duten arrazoiak direla eta USBE ziurtagiria ez edukitzeagatik, edo eskatutako dokumentazioa epeen barruan aurkezteko zailtasunak. Bestetik, pertsona batek bere onarpen nota berrikustea eskatu zuen, arautegiaren arabera kalkulatu ez zelakoan, eta onartua izan ez zen beste batek kexa aurkeztu zuen, itxaron ordena helarazi ez zitzaiolako, behin onartuen zerrenda itxita berak nahi zuen graduan.

Atal honetan sartzen da ere beste pertsona baten kasua: egin nahi zituen ikasketen matrikula dagokion ikastegian formalizatu ondoren, matrikula ezeztatu zitzaion, eskaeran aitortutako datuen egiaztagiriak aurkeztu ez zituela egiaztatu eta gero. Aurretik jada esan dugunez, egiaztatze arduraren organoak eskatzen diegu arindu eta azkartu dezatela zeregin hori, ahalik eta lasterren detektatzeko akatsengatik, zabarkeriagatik edo ezjakintasunagatik gaizki egin diren matrikulak, behin ikasturtea hasita baliogabetzeak beste ikasketa edo unibertsitate batzuetan matrikulatzeko aukerarik gabe utz dezakeelako interesduna.

"**Plazak/Ordezkapen poltsak**" gaiaren barruan sartzen dira UPV/EHUrekin zerbitzu loturarik ez duten pertsonen aztergaiak, askotariko gaiak planteatzen dituztenak: hala nola AZPkoen lan poltsen kudeaketa edo irakasle-ikertzaileen ordezkapen zerrendak.

5. taula. "Beste batzuk" kategoriaren aztergaiak

Gaia	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Arautegia aplikatzeko modua	-	-	-	-	-	-	1	-	-
Arazoak agintariekin	-	1 (1)	-	-	-	-	-	-	-
Bekak/Laguntzak	3 (1)	1	-	1	2	2	1	1	1
Datuak babestea	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Diziplina araubidea	-	-	-	-	1	1	1	-	-
Doktorego tesia	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Erretiroa	-	1	-	-	-	-	-	1	-
Espedientea lekuz aldatzea	-	-	-	-	-	1	-	1	-
Etika akademikoa	-	-	-	-	-	1	-	-	1
Gardentasuna eta gobernu ona	-	-	-	-	-	1	-	-	1
GAURen arazoak	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Gradu/Master amaierako lana	-	-	-	-	1	-	-	-	-
Gradura egokitzea	-	-	-	-	1	-	-	-	-
Ikasketetarako sarbidea	-	3	7	4	1	3	3	1	6
Ikasleen ebaluazioa	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Ikasleen portaera	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Informazioa eskuratzeko eskubidea	-	-	-	-	-	-	1	-	-
Irakaskuntzaren kudeaketa	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Jazarpena/Jazarpen portaera	-	-	2	1 (1)	-	-	-	-	-
Kalte-ordaina zerbitzuengatik	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Kanpo praktikak	-	-	-	-	-	-	1	-	-
Kontratazioa	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Lan baldintzak	-	-	1	-	-	1	-	-	-
Matrikula	-	-	2	-	-	-	-	-	2
Matrikula baliogabetzea	-	-	-	-	-	1	-	-	-
Merezimenduen ebaluazioa	3	-	-	-	-	-	-	-	1
Plazak/Ordezkapen poltsak	7 (2)	6	4 (1)	2	1	1	3	3	5
Presoentzako arreta	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Prezio publikoak	-	-	1	-	-	1	-	-	1
Tituluak eta ziurtagiriak	-	1	-	1	1	4 (1)	3	2	1
Unibertsitatera sartzeko probak	-	-	3	1	-	-	2	-	1
Bestelakoak	-	1	2	2 (1)	-	3	2	2	-
Guztira	13 (3)	15 (1)	26 (1)	14 (2)	8 (0)	20 (1)	18 (0)	13(0)	20(0)

1.9. Bulegoaren esku hartzea

Bulegoan planteatu diren 142 aztergaien artetik, kontsulta guztiek (103, jada esan dugunez) erantzun egokia izan dute.

39 kexen artetik, 13 ez dira onartu: 10 kexa, prozedura arrunta ez agortzeagatik (ez ziren presazkoak); kexa bat, aldezleak gaian eskumenik ez duelako; beste bat, jada konponduta dagoelako; eta beste bat, hauteskunde prozedurei buruzkoa izateagatik.

2020an, onartu ez den kexa kopurua aurreko urteetako baino handiagoa izan da: planteatutako kexen herenak. Onartu ez diren ia kexa guztietan, prozedura arrunta ez amaitzea izan da arrazoi nagusia. Aldezlearen erregelamenduaren arabera, ezohiko kasuetan izan ezik (presazko gai bat denean), bulegoak ezin du ezer egin bide eta prozedura arruntak agortu arte, beste organoekiko errespetuak eragotzi egiten baitigu esku hartzea gaian eskumena duen organoaren ordez.

Beraz, 26 kexa onartu ditugu (jasotakoan % 66,7). Horietatik, 15 kexa atzera bota dira, sakon aztertu ondoren ikusi delako ez dutela lekurik zuzenbidean. Horrenbestez, azkenean 11 kexa baietsi dira (onartutakoan % 42,3). 6. taulak datuak alderatzen ditu aurreko urteetakoekin.

6. taula. Jasotako, onartutako eta baietsitako kexak

	Jasoak	Onartuak (jasotakoan %)	Baietsiak (jasotakoan %)
2012	72	49 (% 68,1)	34 (% 69,4)
2013	65	37 (% 56,9)	27 (% 73,0)
2014	74	37 (% 50,0)	21 (% 56,8)
2015	50	32 (% 64,0)	20 (% 62,5)
2016	47	26 (% 55,3)	17 (% 65,4)
2017	41	37 (% 90,2)	18 (% 48,7)
2018	33	30 (% 90,9)	14 (% 46,7)
2019	31	28 (% 90,3)	16 (% 57,1)
2020	39	26 (% 66,7)	11 (% 42,3)
Guztira	452	302 (% 66,8)	178 (% 58,9)

Beraz, azken urte honetan areagotu egin dira kexak, nahiz eta azkenean aurreko urteetan baino kexa gutxiago onartu diren, eta bai ehunekoa bai baietsitako kexa kopurua orain arte erregistratutakoen artean txikiena izan da.

1.9.1. Baietsitako kexen gaiak

7. taulak baietsitako kexen gaiak biltzen ditu. Hondo urdinez nabarmendu ditugu gutxienez bost urtez errepikatu direnak.

Ikasleen 4 kexa baietsi ditugu, ikasleen matrikula eta ebaluazioaren alorrean sailkatuak. Irakasle-ikertzaileen kasuan, 4 kexa baietsi dira, gai hauek buruzkoak: datu pertsonalak babestea; intimitate, ohore eta norberaren irudirako eskubidea; eta irakasleen ordezkapenak egiteko hautagai zerrenden kudeaketa. Bestetik, AZPko langileen 2 kexa baietsi dira, bi alorretan: gardentasuna eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea; eta norberaren irudirako eskubidea. Azkenik, "Beste batzuk" kategorian, kexa bat baietsi da plazak eta ordezkapen poltsen alorrean.

7. taula. Baietsitako kexen gaiak

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	Guztira
Arautegia aplikatzeko modua	-	2	-	-	-	-	-	-	-	2
Arautegia ez betetzea	-	-	1	-	-	-	-	-	-	1
Arazoak ikaskideekin	-	-	-	-	2	1	-	-	-	3
Bekak	-	1 (1)	-	1 (1)	-	-	-	1	-	3 (2)
Doktorego tesia	-	-	1	-	-	-	-	-	-	1
Euskarari arreta	-	-	-	-	-	1	-	-	-	1
Gradu/Master amaierako lanak	-	-	-	1	-	-	-	-	-	1
Ikasketetarako sarbidea	4 (1)	-	-	-	-	-	-	-	-	4 (1)
Ikasleen ebaluazioa	1	2	-	1	3	3	-	-	3	13
Intimitaterako eskubidea	-	1	-	-	-	-	1	-	-	2
Irakaskuntzaren kudeaketa	-	-	1	-	-	-	1	-	-	2
Irakasleen portaera	-	-	-	-	-	-	2	-	-	2
Jendearentzako arreta	-	2	-	-	-	-	-	-	-	2
Kanpo praktikak	-	-	1	-	-	-	-	-	-	1
Konpentsazio bidezko ebaluazioa	3	-	-	-	1 (1)	-	-	-	-	4 (1)
Kredituak baliozkotzea/aitortzea	-	2 (1)	-	-	-	-	-	-	-	2 (1)
Matrikula	-	-	-	-	-	1	-	1	1	3
Mugikortasuna	-	-	-	1	-	-	-	1	-	2
Presoentzako arreta	-	-	-	-	1 (1)	-	-	-	-	1 (1)
Prezio publikoak	1	1	-	1	1	-	-	-	-	4
Tituluak eta ziurtagiriak	-	-	1 (1)	-	-	-	-	-	-	1 (1)
Bestelakoak	1	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Ikasleak guztira	10 (1)	11 (2)	5 (1)	5 (1)	8 (2)	6 (0)	4(0)	3(0)	4(0)	56(7)
Arautegia aplikatzeko modua	-	1	1	-	-	2	-	-	-	4
Arazoak lankideekin	-	3	-	-	-	-	1	1	-	5
Bekak	-	-	-	1 (1)	-	-	-	-	-	1 (1)
Burokrazia	-	-	-	-	2	-	-	-	-	2
Datu pertsonalak babestea	-	-	-	-	-	-	-	-	1	1
Erosketak	-	-	-	1	-	-	-	-	-	1
Erretiroa	1	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Etika zientifikoa (irakasleak)	-	-	1 (1)	-	-	-	-	-	-	1 (1)
Euskarari arreta	-	-	-	-	1	-	-	-	-	1
GAUREn arazoak	-	-	-	-	-	-	-	1	-	1
Ikasleen ebaluazioa	-	1 (1)	-	-	-	-	-	-	-	1 (1)
Ikasleen portaera	1	-	-	-	-	1	-	-	-	2
Ikastegi zuzendaritzaren portaera	-	-	1	-	-	-	-	-	-	1
Informatika aplikazioen funtzionamendua	-	-	-	-	-	-	-	2	-	2
Intimitate, ohore eta norberaren irudirako eskubidea	-	-	-	-	-	-	-	-	1	1
Irakaskuntza esleitzea	2	-	1	1 (1)	2 (2)	-	1	-	-	7 (3)
Irakaskuntzaren ebaluazioa	-	-	-	-	1(1)	-	-	2	-	3 (1)
Irakasleen Hobekuntzarako Plana	-	-	1	-	-	1 (1)	-	-	-	2 (1)
Irakasleen portaera	-	-	-	-	-	-	1	1	-	2
Jazarpena/Jazarpen portaera	-	1	-	-	-	-	-	-	-	1
Jendearentzako arreta	-	-	-	-	-	1	1	-	-	2
JPA/Kredituak aitortzea	2 (1)	-	-	-	-	-	-	-	-	2 (1)
Lan baldintzak	2	-	-	1	1	2 (1)	-	1(1)	-	7 (2)
Lizentziak eta baimenak	-	-	-	-	-	-	1	-	-	1
Osagarri gehigarriak	-	2	-	-	-	-	-	-	-	2
PIF ordainsariak	-	-	1	-	-	-	-	-	-	1
Plazak/Ordezkapen poltsak	-	2 (1)	3 (1)	2 (1)	-	-	-	-	2	9 (3)
Prezio publikoak	1	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Saileko zuzendariaren portaera	-	-	1	-	-	-	-	-	-	1
Tratu berdintasuna	-	-	-	-	-	-	1	1	-	2
IRI guztira	9 (1)	10 (2)	10 (2)	6 (3)	7 (3)	7 (2)	6(0)	9(1)	4(0)	68(14)

7. taula. Baietsitako kexen gaiak (jarraipena)

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	Guztira
Arautegia aplikatzeko modua	-	-	-	-	-	-	1	-	-	1
Arautegia ez betetzea	-	1	-	-	-	-	-	-	-	1
Bateraezintasunak	-	-	-	-	-	-	1	-	-	1
Errektoretzaren portaera	-	1 (1)	-	-	-	-	-	-	-	1 (1)
Erretiroa	-	-	-	1 (1)	-	-	-	-	-	1 (1)
Hierarkien gorago dagoenaren portaera	-	-	1	-	-	-	-	-	-	1
Informazioa eskuratzeko eskubidea	1	-	1	2 (2)	-	-	-	-	1(1)	5 (3)
Intimitate, ohore eta norberaren irudirako eskubidea	-	-	-	-	-	-	-	-	1	1
Irakasleen portaera	-	-	-	-	1	-	-	-	-	1
Lan baldintzak	3	1	-	2 (1)	1 (1)	2 (1)	1	2(1)	-	12 (4)
Merezimenduen ebaluazioa	1	-	-	1 (1)	-	-	-	-	-	2 (1)
Plazak/Poltsak/ Lekualdaketa lehiaketak	2	-	1 (1)	-	-	1 (1)	-	1	-	5 (2)
AZP guztira	7 (0)	3 (1)	3 (1)	6 (5)	2 (1)	3 (2)	3(0)	3(1)	2(1)	32 (12)
Bekak	1(1)	-	-	-	-	-	-	-	-	1 (1)
Gardentasuna eta gobernu ona	-	-	-	-	-	1	-	-	-	1
Ikasketetarako sarbidea	-	2	2	1	-	-	-	-	-	5
Jazarpena/Jazarpen portaerak	-	-	-	1 (1)	-	-	-	-	-	1 (1)
Kontratazioa	-	1	-	-	-	-	-	-	-	1
Merezimenduen ebaluazioa	1	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Plazak/Ordezkapen poltsak	6 (2)	-	1 (1)	-	-	-	-	-	1	8 (3)
Tituluak eta ziurtagiriak	-	-	-	-	-	1 (1)	-	1	-	2 (1)
Bestelakoak	-	-	-	1 (1)	-	-	1	-	-	2(1)
"Beste batzuk" guztira	8 (3)	3(0)	3 (1)	3 (2)	-	2 (1)	1(0)	1(0)	1(0)	22 (7)
GUZTIRA	34(5)	27(5)	21(5)	20(11)	17(6)	18(5)	14(0)	16(2)	11(1)	178(40)

1.9.2. Baietsitako kexen jomuga diren kolektiboak eta organoak

8. taulak biltzen ditu baietsitako kexen jomuga diren kolektiboak eta organoak. Hondo urdinez nabarmendu dira sei urtez baino gehiagoz errepikatu direnak.

8. taula. Baietsitako kexen jomuga diren kolektiboak eta organoak

Kolektiboak eta organoak	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Argitalpen Zerbitzua	-	-	-	-	1	-	-	-	-
Arkitektura GET Zuzendaritza	-	1	-	-	-	-	-	-	-
AZP	-	-	-	-	-	1	-	-	-
Berrikuntz, Gizarte Konprom. eta Kulturgintzaren Errekt.	-	-	-	-	-	1	-	-	-
Bilboko Hezkuntza F. Dekanotza	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Bilboko Ingeniaritza E. Idazkaritza	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Bilboko Ingeniaritza E. Zuzendaritza	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Bizkaiko Campuseko Errektoreordetza	-	-	-	-	-	-	-	1	-
DBHko Irakasleen Prestakuntza Masterra Zuzendaritza	1	-	-	-	1	-	-	-	-
Ekonomia eta Enpresa F. Dekanotza	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Erosketen atala	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Errektoretza	4	3	1	1	1	-	-	-	-
Euskara eta Eleaniztasunaren arloko Errektoreordetza	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Farmazia F. Dekanotza	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Gasteizko Erizaintza UE Zuzendaritza	-	-	-	-	-	-	1	-	-
Gerentzia	8	1	-	-	1	1	1	-	2
Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetza	-	-	-	-	-	-	1	-	-
Gizarte eta Komunikazio Zientzien F. Dekanotza	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Graduko eta Graduondoko Ikasketen arloko Errektoreordetza	6	3	1	-	-	1	1	1	-
Hezkuntza eta Kirola F. Dekanotza	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia F. Dekanotza	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Idazkaritza Nagusia	1	1	1	3	-	-	1	-	-
Ikaslea	1	1	-	-	2	2	-	-	-
Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko Errektoreordetza	-	-	-	-	-	-	1	-	-
Ikerketaren arloko Errektoreordetza	2	1	1	2	1	-	-	1	-
IKT Gerenteordetza	-	-	-	-	-	1	-	3	-
Ikuskizunaren Arteak eta Zientziak Masterra Zuzendaritza	-	-	-	1	-	-	-	-	-
IMHko Ingeniaritza Dualaren UE Zuzendaritza	-	-	-	-	-	2	-	-	-
Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetza	6	3	5	3	3	3	2	2	1
IRI	-	5	1	-	3	1	4	2	2
Itsas Ingeniaritza Masterra Zuzendaritza	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Kanpoko Praktiken Zuzendaritza	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Komunikazio bulegoa	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Konpentsazio epaimahaia	-	-	-	-	1	-	-	-	-
Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko Errekt.	-	-	-	1	1	-	-	1	-
Lanbidera bideratutako master Zuzendaritza	-	-	-	-	-	2	-	-	-
Master eta Doktorego Eskola	-	1	1	-	1	-	-	1	-
Medikuntza eta Erizaintza F. Dekanotza	-	1	1	-	-	-	-	2	1
Pertsonaleko Gerenteordetza	-	1	1	3	-	1	1	1	2
Psikologia F. Dekanotza	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Psikologia F. Idazkaritza	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Sailtako zuzendariak	2	-	4	-	1	-	1	-	1
Sarbidea	-	-	2	1	-	-	-	-	-
UPV/EHU - Osakidetza batzorde paritarioa	-	-	-	-	-	1	-	-	-
Zerbitzu burua	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Zientzia eta Teknologia F. Idazkaritza	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Zuzenbide F. Dekanotza	-	-	1	1	-	1	-	-	-
Guztira	34	27	22	20	17	18	14	16	11

1.10. Jasotako erantzuna

Rexak eragin dituzten pertsona edo organoetara jo dugunean, erantzuna egokia izan da kasu gehienetan: baietsitako 11 kexetatik 10etan, pertsonak edo organoek egoki eta zentzuz hartu dituzte bulegoak egin dizkien planteamenduak. Kasu bakar batean, aldiz, ez da kontuan hartu gure gomendioa.

9. taula. Pertsonen edo organoen erantzuna

Erantzuna	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	Guztira
Ona	27	22	15	18	15	16	12	16	10	151
Ona, neurri batean	3	2	3	2	2	1	-	-	-	13
Txarra	4	3	3	-	-	1	2	-	1	14
Guztira	34	27	21	20	17	18	14	16	11	178

1.11. Inplikaturako zerbitzuen eta arduradunen lankidetzak

Urteko txosten honen aurkezpena baliatu nahi dugu beste behin eskerrik beroena emateko Aldezlearen zerbitzuarekin elkarlanean aritu diren eta gure eginkizuna betetzen lagundu diguten pertsona gutiei: ikastegi eta sailtako idazkaritzetako langileei, ikastegietako dekanok eta zuzendariei, sailtako zuzendariei, zerbitzuetako arduradunei, errektore taldeko kideei...

2. Aldezlearen beste eginkizun batzuk

Kontsultak eta keak edo bitartekaritza prozedurak jaso, izapidetu eta ebazteaz gainera, beste zeregin batzuk izan ditugu. Hona hemen aipagarrienak:

2.1. Lankidetzaren G9 taldeko defendatzaileekin

2020ko azaroaren 19an, UPV/EHU kide den G9 taldeko defendatzaileek bilkura bat egin zuten on-line, Gaztela-Mantxako Unibertsitateak antolatuta. Gai hauek aztertuz ziren:

- 1) On-line ebaluazioan egiten den iruzur akademikoaren aurkako borroka. Egiletza elkarrizketak. On-line ebaluazioa GRALen eta MALen defentsan.
- 2) Talde bimodalak/talde presentzialak.
- 3) Lan presentzialera egokitzeko arazoak eta kolektiboen arteko bizikidetzaren (irakasle-ikertzaileak, AZP, ikasleak). Arreta psikologikoko zerbitzuen esku hartzea.
- 4) Diziiplina akademikoko erregelamendua indargabetzea eta horrek sortu duen lege hutsunea.

2.2. CEDUren Jardunaldi Teknikoa

2020ko ekainaren 17an, Estatuko Unibertsitate Defendatzaileen Konferentziak (CEDU) jardunaldi tekniko batzuk antolatu zituen, modalitate ez-presentzian, "Lana, kontziliazioa eta COVID-19a. Zer aurkituko dugu itzultzean?" izenburupean. Gai hauek aztertu ziren:

- 1) "Lana, kontziliazioa eta COVID-19a. Zer aurkituko dugu itzultzean?" ikerketaren emaitzak, eta ondorioak unibertsitate defendatzaileentzat.
- 2) Komunikazio gaitasunak. Pertzepzioa, errealitatearen interpretazio gisa. Estrategiak elkarrizketetan.
- 3) Nola kudeatu besteen portaera irrazionala?

2.3. CEDUren XIII. Batzar Nagusia

2020ko azaroaren 6an, Estatuko Unibertsitate Defendatzaileen Konferentziaren XIII. Batzar Nagusia egin zen, on-line.

2.4. Lankidetzeta CEDUko defendatzaileekin, foroetan parte hartuz

Unibertsitate defendatzaileen arteko elkarlanaren baitan, ohikoa da gaiak posta elektronikoz bidez planteatzea, gai askotarikoei buruzko informazioa eskatuta. 2020an, gure bulegoak parte hartu du CEDUko defendatzaileek kontsultatutako hainbat gaitan, eta ekarpenak egin ditu. Gainera, erantzun egin diegu G9ko eta CEDUko bileretan aztertutako gaiari buruzko informazioa eskatuz iritsi zaizkigun inkesta guztiei.

2.5. UPV/EHUren Gobernu Kontseilua

Aldezlea Gobernu Kontseiluaren bileretan izan da, gonbidatu gisa. Bilera horietan parte hartzeak aukera ematen digu sakonago ezagutzeko gure unibertsitatean planteatzen diren eztabaidak, erabakiak eta proposamenak, baita sortzen diren arazoak ulertzeko ere, eta hori oso baliagarria zaigu gure eginkizunak betetzeko.

3. Urteko txosten ekonomikoa

2020ko aurrekontua 20.000 eurokoa izan da. 10. taulak laburbiltzen ditu eginiko gastuak eta urteko ekitaldi ekonomikoa ixteari –abenduak 31– dagokion kontuen egoera.

10. taula. 2020ko laburpen ekonomikoa

Hasierako aurrekontua	20.000,00 €
Gastuak	
Bulegoko materiala, fotokopiak...	1.038,88 €
CEDU bazkide kuota	225,00 €
Liburuak	36,18 €
Informatika ekipamendua	123,52 €
Bidaia eta dietak	10.693,78 €
Beste gastu batzuk	207,78 €
Gastuak guztira	12.325,14 €
Saldoa	7.674,86 €

4. Ondorioak eta gomendioak

2020an egin diren kontsultak eta kekek oinarri hartuta, gogoeta egin nahi genuke unibertsitateko kideekin batera, bulegora iritsi zaizkigun gai batzuen inguruan, arreta berezia merezi duten gai batzuk barne, helburua izanik gizarteari ematen diogun zerbitzua hobetzea. Ohartarazi behar dugu aipatuko ditugun gaiak ez direla estatistikoki erabakigarriak eta ezin direla hartu UPV/EHUren jardueraren adierazgarritzat. Gai zehatzak dira, eta ia beti bakanak. Edonola ere, uste dugu gai horiei buruz gogoeta egitea, nahiz eta esanguratsuak ez izan unibertsitatearen jardura globalari dagokionez, ezta planteatzen dituzten kolektiboei dagokienez ere, mesedegarria izan daitekeela unibertsitatearen zerbitzua hobetzeko, horixe delako azken batean aldezearen egitekoa.

Hori horrela, jada esan dugunez, 2020a urte zaila izan da eta UPV/EHUK aurre egin behar izan dio bere historia osoko desafio handienari, bere jardura egokituta alarma eta konfinamendu egoeretara. Horregatik, hurrengo lerroetan azalduko diren gogoetek eta ondorioek zerikusia dute COVID-19ak sortutako krisiarekin eta krisi horrek gure unibertsitatean izan duen inpaktuarekin; bereziki, unibertsitateko kideen eskubideetan izan duen inpaktuarekin.

Gai orokorrak

Krisi egoerara azkar egokitu bagara ere, tentsioak sortu dira. UPV/EHU ez da salbuespena izan eta, gizartearen beste esparru batzuetan bezala, gorabeherak izan ditugu, hedabideek hauspotuak kasuren batean. Alde horretatik, irakasle batzuek idatzi bat helarazi zioten aldezeleari, babesa eskatzeko hedabide batzuetan argitaratutako iritzi baten aurrean, zeinaren arabera irakasle batzuek ez zuten profesionaltasunez jokatu konfinamenduan. Idatzian aipatzen zituzten prentsan argitaratutako albisteak, ikasleen kexen protokoloari eta Ikasleen Kontseiluak irakaskuntza ez-presentziala ardatz harturik eginiko gogobetetze inkesta baten emaitzei buruz.

Aldezearen bulegoak nabarmendu egin nahi du irakasleek, oro har, profesionaltasun handiz jokatu dutela jardura presentzialetik ez-presentzialera igarotzean. Berebiziko ahalegina egin dute irakasgaien gidak egokitzeko, materialak prestatzeko, praktikak egokitzeko, zuzenketak egiteko, tutoretzak antolatzeko, ebaluazio probak moldatzeko eta ingurune birtualera egokitzeko, eta hori guztia epe labur-labur batean. Aitortu egin behar zaie ahalegin hori. UPV/EHUko profesionalak neurria eman dute, eta, oztopoak oztopo, jarraitu egin dugu euskal gizarteari zerbitzu publikoa ematen, ahalik eta hobekien.

Bereziki nabarmendu nahiko nuke lanaldi partziala duten irakasleen inplikazio pertsonala. Alde horretatik, hainbat kontsulta jaso ditugu ordu gutxiko kontratuak dituzten irakasleen lan karga izugarriaz, beren irakats lana, materialak... egokitu behar izan dituztelako ere ingurune birtual berrira. Salbuespen egoera bat da, eta horregatik eskatu zaie eginahal berezi bat irakasleei, unibertsitate zerbitzu publikoa eta kalitatezkoa ematen jarraitzeko. Langile horien erantzuna txalotzekoa izan da, eta bidezkoa da hori aitortzea.

Bestetik, prentsak ere aipatu zuen klaseak maskararik gabe eman zituen irakasle baten kasua. Kasu bakar bat izan bazen ere –organo eskudunek behar bezala bideratu zutena–, gogoratu nahi dugu zer garrantzitsua den zorrotz jokatzea gure betebeharrak betetzeko orduan, are gehiago gure zeregina denean unibertsitate honetan matrikulatutako ikasleen prestakuntza. Geure buruari jarritako betebeharrei muzin egiten dien irakasle bat eredu ezin txarragoa da gure ikasleentzat.

Ebaluazioa

COVID-19ak sortutako pandemiak goitik behera baldintzatu ditu irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak, ebaluazioa barne. 2019/2020 ikasturteko lehen lauhilekoko ebaluazio prozesuak normaltasunez egin ziren. Aldiz, 2020ko martxoan, konfinamendua ezarri zenean, UPV/EHUk aurre egin behar izan zion irakats jarduera ez-presentzialaren ebaluazioa antolatzeko erronkari, modalitate ez-presentzialean ere egin beharreko ebaluazioa. UPV/EHUren Gobernu Kontseiluaren 2020ko apirilaren 8ko batzorde iraunkorrean, onartu egin ziren graduako eta masterreko titulazioen irakaskuntza eta ebaluazioa COVID-19aren pandemiak sortutako salbuespenezko egoerara egokitzeko gidalerroak. Ebaluazio sistemek egokitu egin behar zuten irakaskuntza ez-presentzialera, eta horretarako gomendatzen zen erabiltzea batez ere etengabeko ebaluazioaren sistema, edozein proposamen ikasle guztiengana teknologikoki iritsiko zela ziurtatuta. Irakasgaien ardura duten sailei zegokien onartzea irakasleek proposatutako egokitzapenak, ikasleen ordezkarietara entzun ondoren.

Besteak beste, erabaki zen GRALen eta MALen defentsa bideokonferentziaz edo beste on-line baliabide batzuen bidez egitea, salbuespen gisa eta COVID-19aren pandemian hartutako neurriek iraun bitartean. eGela eta Blackboard Collaborate (BBC) sistemak gomendatu ziren, irakaskuntza telematikorako kontaktu birtuala – baina berehalakoa– ziurtatzen dutenak irakaslearen eta ikaslearen artean.

Ebaluazioari dagokionez, bi alderdi nagusi aipatu nahi genituzke txosten honetan: alde batetik, probak ingurune birtual batean garatzeko alderdi formalak eta, bereziki, irudiak grabatzeko aukera; bestetik, ebaluazio proben edukia eta, horrekin batera, iruzurra detektatzea zuzenketa fasean.

a) Ebaluazio proben alderdi formalak

Lehenengo gaiari dagokionez, Aldezlearen bulegoak kontsulta bat jaso zuen ikasleak ebaluazio probetan grabatzeko (edo ez grabatzeko) aukerari eta datu pertsonalak babesteko eskubidea bermatzeari buruz. Hasteko, kontuan izan behar da pertsonaren irudia datu pertsonal bat dela, eta grabatutako irudi horren tratamendua egokitu egin behar dela datu pertsonalak babesteari buruzko arautegira. Errendimendu akademikoaren ebaluazioa, beraz, unibertsitateak bermatu behar dituen interes publikoen barnean sartzen da. Ondorioz, unibertsitatea legitimatuta dago proben jarraipen egokia egiteko eta iruzurra edo portaera desegokiak saihesteko behar diren neurriak hartzeko. Edonola ere, neurri horiek oinarrizko eskubideei eragiten dietenez, aintzat hartu behar dira babestutako ondasun juridikoak, proportzionaltasun printzipioa bereziki, eta baloratu egin behar da beste bitarteko batzuk erabiltzeko aukera, pertsonen intimitatean eragin txikiagoa izango dutenak, justifikaziorik gabeko interferentziak prebenitzeko oinarrizko eskubide eta askatasunean. Azken batean, soilik erabili behar dira ikasleen ezagutzak egiaztatzeko behar-beharrezkoak diren datu pertsonalak, kontuan izanik zilegitasun, leialtasun eta gardentasun printzipioak.

Printzipio horietan oinarrituta, Gradu eta Graduondoko Ikasketen arloko errektoreordeak instrukzio bat argitaratu zuen 2020ko maiatzaren 7an, 2019-2020 ikasturteko on-line ebaluazio probetan irudiak eta soinua grabatzeko sistemen erabilerari buruzkoa. Bi proba mota nagusi bereizten ditu: ahozko proba sinkronikoak eta idatzizko proba sinkronikoak. Ahozko probei dagokienez, gogorarazten da ikasleek eskubidea dutela eskatzeko probaren grabazioa, soinu formatuan. Irakasleek eskubide horren berri eman behar diete ikasleei. Sailari dagokio artxiiboak zaintzea eta gordetzea, hurrengo ikasturtea amaitu arte gutxienez, ebazteke dagoen errekurtsio bat dagoenean izan ezik (kasu horretan, ebazpena iritsi arte mantenduko da). Grabazioak erabiliko dira soil-soilik irakaskuntza egiaztatzeko, kalifikazioak berrikusteko eta errekurtsioetarako.

Idatzizko probei dagokienez, irakasleek haien jarraipena egin ahal izango dute irudia eta soinua transmititzeko sistemen bidez (BBC sistema eGela plataforman edo BBCbilerak). Soinua transmititzeko gailua probaren hasieran piztu eta hura amaitzean itzaliko da; aldiz, irudia transmititzeko gailua ikasleek aktibatuko dute, irakasleak eskatzen dienean. Kontuan izango da beti ikasleek nor bere etxetik egingo dutela proba. Idatzizko probetan ez da grabatuko ez irudirik ez soinurik.

Zalantzazko testuinguru juridiko batean, UPV/EHUren arautegi honek segurtasun juridiko handiago eman die ebaluazio probei. Aldezlearen ustez, bermez ebaluatzeko helburuari egokitutako neurriak dira, eta horixe adierazi zitzaien galdezka etorri zitzaizkigun pertsonari. Nolanahi ere den, ahal izan den lekuraino iritsi da eskubideen bermean eta proportzionaltasunaren bilaketan; hau da, irtenbide proportzional bat bilatu da, horrek esan nahi ez badu ere hartutako neurriekin iruzurra guztiz saihestea berma daitekeenik.

Beste ikuspegi batetik, esparru juridiko berriak sortzen duen beste gogoeta bat da, hain zuzen, esparru horren oinarri juridikoen ahultasuna. Praktikan jarri ditugun neurriak, egokitzen hartzen ditugunak, Gomendioen, Instrukzioen, Norabideen.. bidez artikulatu dira. Urteak daramatzagu on-line irakaskuntza ematen, baina gure egitura arauemailea pentsatuta dago soil-soilik aurrez aurreko irakaskuntzarako. Metatu dugun esperientziaren bidez, egokia litzateke gure unibertsitatearen arautegi orokorrean txertatzea ikasleen eta irakasleen eskubideen bermeak on-line ebaluazioari eta irakaskuntzari dagokienez (edo, nahiago bada, ingurune ez-presentzialerako arautegi espezifiko batean, nahiz eta ingurune presentzialean gai homonimoak arautzen dituen arautegiaren maila berberarekin).

b) Proben edukia eta iruzurra detektatzea zuzenketa fasean

Ebaluazioari lotuta aipatu nahi dugun bigarren gaia da ebaluazio proben edukia eta iruzurra hautematea zuzenketa fasean. Kexaren bat ere iritsi zaigu horri buruz.

UPV/EHUko irakasleek hartu behar izan duten erabaki zailenetakoa izan da zehaztea ingurune birtualean egin beharreko ebaluazio proben forma eta edukia. Zailtasuna sortu da hainbat arrazoiengatik: besteak beste, irakats lanaren ezohiko baldintzak, ingurune birtualaren ezaugarriak, irakasleen esperientzia eskasa era honetako probetan (ikasgelan ebaluatzerako ohituak), ingurune presentzialean ondo funtzionatu duten eskemak aldatzeko zailtasuna. Baita beste faktore batzuk ere: hala nola unearren ezohikotasuna, irakasle batzuen nolabaiteko kontrolatzeko obsesioa, edo Hezkuntza Ministerioaren iritzi kualifikatuak, pandemiagatik inork ez zuela ikasturtea galduko ziotenak. Horiek guztiak eta beste batzuk presente egon dira ebaluazio proben diseinuan.

Egoera zaila izan bada ere, gutxi izan dira proben edukiari eta formari lotuta Aldezlearen bulegoan jaso ditugun kexak, eta gauzak zentzuz egin direla adierazten digu horrek. Hala eta guztiz ere, beti esan ohi dugun moduan, erlatibizatu egin behar dira txosten honek bildutako datuak, kexa kopuruak ez duelako zertan adierazi arazoa orokorra denik, edo ez denik. Edonola ere, ebaluazioari dagokionez, bulego honek daturik ez badu ere aurreko ikasturteko errendimendu akademikoaren emaitzei buruz, kexa kopuru txikiaren arazoia izan liteke oro har ikasleen gustukoak izan direla on-line ebaluazioaren emaitzak. Hori bai, gogoeta egin beharko genuke ea gure ikasle onenek aukera izan duten dakiten guztia erakusteko martxan jarri diren ebaluazio sistemen bidez; hots, ea jakin dugun merezi zuten moduan erantzuten.

Bulegora iritsi diren kexen artean, lehenik eta behin aipa dezagun baldintza berezietan egin beharreko azterketa bati buruzko kexa bat. Azterketak hiru ariketa zituen, hiru orduetan egin beharrekoak. Ariketa bakoitza independenteki jakinarazten zen, halako moldean, non lehenengo ariketaren entregak bigarrenarena irekitzen zuen, eta, horrela, hurrenez hurren. 20 minutuero, ikasleek azterketaren argazki bat egin eta plataformara igo behar zuten. Azterketak diseinatuzeko moduari

eta haien edukiei dagokienez, ezer gutxi du esateko aldezeak, eta bete-betean sartzen da hori irakasleen ahalmen teknikoaren barruan, segurtasun betekizunak zorrotz-zorrotzak direnean izan ezik, hankaz gora jar baitezake ikasleek beren ezagutzak erakusteko duten eskubidea.

Oro har egin behar den gogoeta hau da: azterketak ingurune birtualean antolatu eta prestatzeko modua egokitu egin behar du ingurune horretara eta segurtasun neurrietara. Ingurune presentzian ondo funtzionatzen duen proba sistema batek ez du zertan ondo funtzionatu ingurune birtual batean. Erronka da, beharbada, ebaluazio modua aldatzea, erabiliz, adibidez, ezagutzak kasu praktikoekin lotzea, ikasleen eskura dauden era guztietako materialak erabiliz ere ebatz daitezkeen galderak formulatzea... Beste modu batean esateko, ez gaitu itsutu behar iruzurraren aurkako borrokak, beren helburua beteko duten proba akademikoak diseinatzeak baizik, egokiak izango direnak ingurune birtualerako. Horrekin batera, ez dugu ahaztu behar Graduoko eta Graduondoko Ikasketen arloko errektoreordearen instrukzioek etengabeko ebaluazioaren alde egiten duten apustua, ikasleen ebaluaziorako erregelamenduan aurreikusita dagoena.

Beste kasu aipagarri bat da plagio orokor zantzuak zirela eta suspentso orokorra izan zuen azterketa bat. Plagioa detektatu zen probak zuzentzeko unean. Kalifikazioari buruzko keza batzuk iritsi ziren bulegora; besteak beste, azken deialdian zeuden ikasleenak eta beren hitzetan klaseko ikaskideekin inolako erlazorik ez zutenenak. Azkenean, kalifikazioa aldatu zen.

Plagioa edo iruzurra proba zuzentzean hautamen daiteke. Horren zantzuak izan daitezke azaltzen ez diren baieztapenak edo amaierako datuak, kointzidentziak (nekez azal daitezkeenak) ikasle talde batean, kointzidentziak akatsetan edo datu okerretan, deskonpentsazio nabarmenak antzeko galderen erantzunetan, kopien detekzioa plagioaren aurkako tresnen bidez, baita Interneteko *kopiatu/itsatsi*-ak ere, testuan bertan hiperestekak sartzeagatik detektatuak.

Irakasleek beren osotasunean baloratu behar dituzte balizko iruzurraren zantzuak, kontuz eta arretaz, ikasleei entzunez beti. Irakasleak irizpide batean oinarritu behar du, zalantzarik gabe iruzur egin dela baieztatzeke modua emango diona. Kalifikazioa, kalifikazio oro gisa, berrikusi ahal izango da (irakaslearen aurrean), eta behin betiko kalifikazioaren aurkako erreklamazioa ere egin ahal izango da (lehenik sailaren eta gero ikastegiaren aurrean), ikasleak eskatuta.

Iruzurra zalantzarik gabe egiaztatzeke aukera bat izan daiteke egiletza elkarrizketak erabiltzea. Elkarrizketa horietan, irakasleak iruzur zantzuak azaltzen dizkio ikasleari eta honek azalpenak ematen ditu; irakasleak galdera zehatzak egin diezazkioke azterketari buruz. Galdera horiek azterketari buruzkoak izan behar dute eta ezin da beste inolako galderarik egin, azterketa berri bati buruzkoak, edo jada egindakoaren osagarritzat har litezkeenak (arautegiak debekatu egiten du hori).

Planteatu zaigun beste kasu bat da iruzurra edo plagioa detektatzea behin betiko aktak sinatu ondoren, irakasleari horri buruzko informazio bat iristen zaionean aktak izenpetu eta gero. Gai honi dagokionez, uste dugu ezin dela jo, entzunaldia bermatu gabe, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikulua administrazioari ematen dion ahalmenera (administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofiziosz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak). Oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak zuzentzeko baliabidea modu murriztailean interpretatu behar da, jurisprudentziak adierazi bezala, eta ezin dira balorazio judizioak egin, egintzaren zentzuari edo edukiari eragingo lioketenak, kasu honetan bezala. Iruzurra edo plagioa detektatzen denean behin betiko kalifikazioen ondoren, aldezelek uste du jo beharko litzatekeela egintza administratiboak berrikusteko bideetara, eta unibertsitateak berak kaltegarritasun prozedura bat eskatu beharko lukeela.

On-line irakaskuntzarako eskubidea

Galdetu zaigu ea indarrean dagoen esparru juridikoak aitortzen duen ikasleek irakaskuntza on-line modalitatean jasotzeko duten eskubidea. Aztergai hau planteatu zaigu irakaskuntza-ikaskuntza modu presentzian antolatuta dagoen kasuetan, baita presentziantasun egokituaren bidez antolatutakoetan ere: hau da, jarduera nagusiki presentzian konbinatzen denean lan telematikoarekin eta ikasleen ikaskuntza autonomorako prestakuntza-jarduera ez-presentzialekin.

Irakaskuntza guztiz presentzian duen ikastalde batean, badago eskubiderik irakaskuntza on-line modalitatean jasotzeko? Era berean, ikastalde batean konbinatzen denean taldearen zati baten presentziantasun fisikoa eta beste baten telepresentziantasuna, eska dezake on-line modalitatean aritzea ikasgelara joan behar duen ikasle batek? Edo alderantziz, eska dezake ikasgelara joatea ikasgelara joan behar ez duen ikasle batek?

Ikasleen motibazioak eta haien egoerak askotarikoak dira. Gogoan izan, adibidez, nahitaez konfinatuta dauden ikasleak edo prebentzioz bakartuta daudenak (ikastegira edo lantokira sartzea debekatuta dute COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak dituzten pertsonak, gaixotasuna diagnostikatuta izanik bakartze aldia amaitu ez dutenek, edo etxean berrogeialdian daudenek harreman estua izateagatik sintomak dituen edo COVID-19a diagnostikatu zaion pertsona batekin, etab.). Edo arrisku bereziko taldeetako ikasleak, senide konfinatuak zaindu behar dituztenak, konektibitate urriko ikasleak edo ekipo informatiko zaharkitua dutenak, edota, besterik gabe, on-line irakaskuntza jaso nahiago dutenak.

Arautegiak ez du aitortzen on-line "irakaskuntza" edo "ebaluazioa" jasotzeko eskubide orokorrik, eta zehazki aipatzen ditu "UPV/EHUn ikasketen jarraipen presentzian jarduteko aldi baterako ezintasunean dauden ikasleak". Pentsa genezake

gaixotu diren edo ospitaleratu dituzten pertsonengan, eta COVID-19a dela eta UPV/EHUren arautegiak fakultate eta eskoletara sartzea debekatzen dien guztiengan (ikus UPV/EHUko ikastegiak 2020/2021 ikasturterako hartu beharreko neurriak – 2020ko urriaren 8ko eguneratzea–). Formulazioa zabala bada ere, “ezintasuna” aipatzen da, ez borondate hutsa.

Hori horrela, pertsona horiei dagokienez, *“sailek egokitzapen akademiko eta pedagogiko egokiak egin beharko dituzte, bai irakaskuntzan, bai tutoretzan edo ebaluazio sistemetan, ikasle horiek matrikulatuta dauden irakasgaietan, modu horretan beren ikasketak egoera horretan jarrai dezan laguntzeko”* (Irakaskuntza eta ikaskuntza planifikatzeko orientabideen 5. puntua).

Ildo horretan, “UPV/EHUko ikastegiak 2020/2021 ikasturterako hartu beharreko neurriak” dokumentuaren 3.1.1 epigrafean, honako hau irakur daiteke: *“Isolatuta egongo den ikasleak irakaslaguntza jasoko du, aintzat harturik beti irakasgai bakoitzaren ezaugarriak eta berezitasunak. Ikastegia arduratuko da bakartuta dagoen ikasleak eta koarentenan dauden kontaktu estuek matrikulatuta dauden irakasgaietan irakaslaguntza jasotzen dutela”*.

Esparru subjektibo horri bakar-bakarrik dagokionez, arautegiak aipatzen ditu *“irakaslaguntza”* jasotzeko eskubidea, *“egokitzapen akademikoak eta pedagogikoak”*, *“tutoretzak”* eta *“ebaluazio sistemak”*. Ez da aipatzen on-line irakaskuntza jasotzeko eskubide subjektiborik.

UPV/EHUUn ikasketak modu presentzialean jarraitu ezin dituzten ikasleei dagokienez, aldeak gomendatzen du araua interpretatzea hezkuntzarako eskubidea ahalik eta gehien bermatzeko moduan. Hala, irakasgai presentzialen kasuan, ikasgelak baldin badu audio eta bideo transmisiorako tresneria informatikoa, sistema hori erabiltzea gomendatzen da, COVID-19agatik ikasgelan egon ezin diren ikasleentzat.

Presentziantasun egokituko sistema erabiltzen denean (ikasle talde bat modalitate presentzialean eta beste bat on-line modalitatean), arautegiak ez du ezer esaten ikasleek nahi duten modalitatea aukeratzeaz (beren borondatez talde batean edo bestean aritzea aukeratzea). Jakina, COVID-19agatik eskola presentzialetara joan ezin diren ikasleek eskubidea izango dute on-line sistema erabiltzeko, modalitate horrek ematen dituen aukeren neurrian (kasu honetan ez da sartzen pantaila ikasgelen sistema, ikasleak fakultatera doazelako eskolak on-line jasotzera). Dena dela, alegatu daiteke beste mota bateko arrazoirik? Adibidez, kontziliazioa edo senide konfinatuen zaintza.

Ikasleek modalitate bat edo bestea hautatzeko aukera mugatzeko, bi motatako arrazoiak argudiatzen dira. Alde batetik, esaten da sustatu egingo litzatekeela absentismoa on-line modalitatea hautatzeko aukera emango balitzate irakaskuntza

presentziala duten ikasleei. Aldezlearen ustez, absentismoa sustatzen duten arrazoiek, irakaskuntza sistemarekin baino gehiago (presentziala edo telematikoa), zerikusia dute beste faktore guztiz desberdin batzuekin: hala nola erabilitako metodologia didaktikoarekin. Bestetik, esaten da ere aukeratzeko askatasuna emateak (ikasgelara joan edo telematikoki jarraitu) zaildu egin dezakeela kutsatzeen jarraipen egokia egiteko lana. Argudio horri dagokionez, aztertu egin beharko litzateke zer aukera dauden ikasgelako presentzia kontrolatzeko sistema alternatiboren bat ezartzeko, kontaktuen jarraipena egiteko, behar izanez gero. Alde horretatik, unibertsitatearen batek QR kodeak jarri ditu ikasgeletan (edo mahaietan), telefono mugikorren bidez irakurri ahal izateko.

Aldezleak gomendatzen du araua interpretatzea irakaskuntza presentziala ahalik eta gehien sustatzeko moduan, zorroztz beteta segurtasun neurriak. Gainera, ikasleak ezin badira klasera joan COVID-19agatik, gomendatzen da aukera ematea irakaskuntza etxean on-line jasotzeko (pantaila ikasgelen aukera ere eskainiko den arren).

On-line ebaluaziorako eskubidea

Kontsulta bat baino gehiago iritsi zaigu Aldezlearen bulegora ebaluazio probak on-line egiteko eskubiderik badagoen jakiteko. Kontsultak iritsi ziren 2020/2021 ikasturtea aurreratu samar zegoenean. Ikasturte honetan, *"Irakaskuntza eta ikaskuntza planifikatzeko orientabideak"* dokumentuak hiru printzipio aurreikusten ditu ebaluaziorari dagokionez: lehenik, oro har, ebaluazioa modu presentzialean antolatu behar da (egoerak horretarako aukera ematen badu); bigarrenik, gomendatzen da irakasgai guztiek etengabe ebaluatzeko planteamendu bat egitea, ikasten dena sekuentzialki ebaluatzeko; eta hirugarrenik, exijitzen da irakasgai guztiek prest edukitzea alternatiba bat ebaluazio ez-presentziala egiteko.

Honi dagokionez, planteatu zaizkigun gaiek zerikusia dute modu presentzialean antolatutako ebaluazio probekin, ikasleak ezin baitziren proba horietara joan pandemiarekin lotutako arrazoiengatik (mugikortasun programetan zeuden ikasleen bidaiatzeko ezintasuna; mugitzeko zailtasunak pandemiagatik; beste ezohiko arrazoi batzuk), eta galdetu digute ea arautegiak onartzen duen ebaluazioa on-line egiteko eskubidea.

Hori horrela, aplikatu beharreko arautegiaren arabera (UPV/EHUko Gradu eta Graduondoko Ikasketen arloko errektoreordearen 2020ko urriaren 9ko zirkularra), ikasle batek ebaluazio probaren egunean ikastegira joateko ezintasuna akreditatzen badu, bermatu egin behar da haren ebaluaziorako eskubidea, saila izango bada ere bi aukera hauen artean hautatuko duena: proba egitea beste ikasleen egun eta ordu berean, modu ez-presentzialean edo on-line; edo beste proba bat egitea presentzialki beste egun batean, azterketen epe ofizialaren barruan, edo hamar egun naturaleko epean gehien jota, azterketen aldi ofiziala amaitzen den egunetik kontatzen hasita.

Arautegiak ez du aitortzen proba on-line egiteko eskubiderik, eta sailak aukeratzen du era horretako proba bat egitea edo proba eguna atzeratu eta beste egun batean presentzialki egitea. Edonola ere, ikasleek akreditatu egin behar dituzte proba egunean ikastegira joatea eragozten dieten arrazoiak. Logikoki, ebaluazio proba hasi aurretik egin behar da hori.

Kontziliazioa

2020an, ikasleek eta irakasle-ikertzaileek hainbat kontsulta egin dizkigute familia kontziliazioarekin lotutako gaietarako. Bereiz aztertuko ditugu:

a) *Ikasleen kontziliazioa*

Prezio publikoak itzultzeko eskaera

Ikasle batek kontziliazioari lotutako bere kasua planteatu zigun. Zehazki, matrikula baliogabetzea eta prezio publikoak itzultzea nahi zuen, COVID-19agatik haurtzaindegiak itxi zirelako, adin txikiko seme-alabak zaindu behar zituelako eta, ondorioz, ezin zuelako ez klasera joan ez lanak garaiz entregatu. Eskaera garaiz kanpo egin zen, bigarren lauhilekoa amaitu ondoren, jada itzulketarik onartzen ez denean. Dena dela, aldeak gaia aztertzea erabaki zuen. 2019/2020 ikasturterako Gradu Ikasketen Gestiorako Arautegiaren arabera (UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartua 2019ko martxoaren 7an eta EHAAn argitaratua 2019ko martxoaren 29an), legez ezarritako epeetan eta forman eginiko matrikula baliogabetzeko eskaerak inola ere ez du berekin ekarriko ordaindutako prezio publikoak itzultzea, salbuespen batzuk ezartzen badira ere. Bestetik, baieztatzen du ikasleek matrikula baliogabetu ahal izango dutela urte bakoitzeko abenduaren 31 arte, baliogabetze hori matrikula osoarena izango dela eta ezin izango dela baliogabetze partzialik edo irakasgai solteen baliogabetzerik egin. Ondorioz, arauak dio matrikula osorik baliogabetu behar dela (ez lauhilekoen arabera edo irakasgai solteak) eta ez direla prezio publikoak itzuliko, salbuespenetan izan ezik.

Alarma egoera indarrean sartu zen 2019/2020 ikasturtearen bigarren lauhilekoa hasita zegoenean (aurrez aurreko hezkuntza jardura eten zuen martxoaren 14ko 463/2020 EDren bidez). Jakina, Gestiorako Arautegiak ez zuen aurreikusten alarma egoerak sortuko zuen egoera. Ikasleek normaltasunez egin zuten lehen lauhilekoa. Aldaketa bigarrenaren gertatu zen, eta bide eman lezake horrek pentsatzeko matrikula baliogabetzea justifikatuko luketen ohiz kanpoko arrazoiak: ikasketak bide elektronikoz egiteko ezintasuna, ikasleentzat bateraezintasunak sortzen dituzten irakasgaien birprogramazioak, ospitaleratzeak edo eritasun larria, edota kontziliazioari lotutako gaiak (hauxe izan zen kasua).

Prezioak itzultzea ahalbidetuko luketen salbuespenei dagokienez, uste dugu gure Gestiorako Arautegian jasotako salbuespenen interpretazio zabalak barne hartuko

lukeela ikasketak uzteko aukera COVID-19ari lotutako arrazoiengatik. Arazoa ez da hori, beste honako hau baizik: gure arautegiak ez zuen aurreikusten matrikularen baliogabetze partzialik. 2020/2021 ikasturterako Gradu Ikasketen Gestiorako Arautegi berriak azken tarteki bat dakar, arazoari irtenbide bat emateko: *"Ikasleak eskaria egiten badu lehen lauhilekoko eskolak behin amaituta, bigarren lauhilekoko irakasgaien zenbatekoa itzuliko zaio, eta dirua itzultzean aldatu egingo zaio matrikula, bigarren lauhilekoko horretako irakasgaiak ezabatuta"*. (35.6 art.).

Arautegi hori 2020/21 ikasturterako bada ere (ez aurreko ikasturterako), egia da nolabaiteko abantaila ekonomiko bat aurreikusi dela 2019/2020 ikasturtearen bigarren lauhilekoko irakasgaiak gainditu ez dituzten ikasleei dagokienez. Zehazki, 2020-2021 ikasturterako prezio publikoei buruzko 2020ko ekainaren 16ko Aginduak salbuespen bat ezartzen du COVID-19ari lotuta: 2020-2021 ikasturtean, hobaritu egingo dira 2019/2020 ikasturtearen bigarren lauhilekoan osorik emandako irakasgaien bigarren matrikuletarako kredituaren prezioak, eta parekatu egingo dira lehenengo matrikularen kostuarekin, gradu Amaierako Lanetan izan ezik.

Kontziliazioarekin lotutako beste kasu batzuk

Beste ikasle batek ere kontziliazioarekin zerikusia zuen bere kasua planteatu zigun. Zehazki, zailtasunak alegatu zituen amaierako ebaluazio proba aurreikusitako datan egiteko, ez zuelako zaintzailerik adin txikiko bere seme-alabentzat. Irakasleak ez zuen egun aldaketarik onartu. Ikasketak eta lana uztartzen zituen pertsona batek bere zailtasunak azaldu zizkigun etengabeko ebaluazio sistema jarraitzeko, lanak taldean egiteko, eta bereziki adierazi zigun ordutegi aldaketak (taldeen berdimentsionamenduari eta presentzialtasun egokituari lotua) eragotzi egiten ziola guztiz ikasketak eta lana uztartzea. Unibertsitate legeriak onartu egiten badu ere ikasleen eskubidea ikasketak lan eta familia bizitzarekin bateratzeko (unibertsitate ikaslearen estatutua onartzen duen abenduaren 30eko 1791/2010 EDren 7., 8., 9. eta 11. artikulua), egia da zehatzago azaldu beharko lirakeela kontziliazioa bultzatzeko neurri espezifikokoak, alderdi didaktikoak eta pedagogikoak barne. UPV/EHUko Ikasleen Arautegiak, 2. artikuluan, UPV/EHUko ikasleen eskubideak zerrendatzen ditu, kontziliazio eskubidea besteak beste: *"27. Ikasketak, lana eta familia bateratu ahal izateko jarduera akademikoak zentzuz diseinatzea, eta horiek egiteko arreta jasotzea, UPV/EHUren antolakuntzako eta aurrekontuko baliabideen arabera"*. Bestetik, 3. artikulua zertxobait gehiago zehazten du gaia: *"3.- irakaskuntza taldea auheratzea, hala badagokio, UPV/EHUk ezarritako baldintzetan. Horrela, prestakuntza bateragarria izango da laneko edo familiako beste jarduera batzuekin, eta, zehazki, genero indarkeriaren biktima diren ikasleen eskubideak bete ahal izango dira"*.

Atera daitekeen ondorio nagusia hau da: kontziliazio eskubidea onartu egiten bada ere kasu honetarako, gutxi garatu den eskubide bat da. Aldezleak uste du zabaldu egin beharko litzatekeela gogoeta orokor bat kontziliazio eskubidea garatzeko bideei buruz, hainbat eragileren parte hartzearekin: agintari akademikoak (Graduko eta Graduondoko Ikasketen arloko Errektoreordetza bereziki), ikasleen

ordezkariak (Ikasleen Kontseilua bereziki). Aldezleak bere burua eskaintzen du gogoeta orokor horretan parte hartzeko, ikasleen artean kontziliazio eskubidea indartzeko neurri zehatzagoak proposatze aldera.

b) Irakasleen kontziliazioa

Tutoretzak eta presentzialtasuna

Irakasle-ikertzaile batek bere kasua planteatu zigun, presentzialtasun egokituari lotua (irakasleek eskola presentzialak ematen dituzte aste batean eta eskola telematikoa, hurrengoan), eta jakin nahi zuen ea tutoretzak etxetik egin zitezkeen irakaskuntza telematikoko astean. Kontsulta planteatzeko unean aplikagarria zen arautegiak ez zuen ezer esaten kasu zehatz horri buruz. Izan ere, 2020-2021 ikasturte hasieran, irakasleen lan presentzialaren hasierari buruzko idatzi bat helarazi zien Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetzak UPV/EHUko sailei, irakasle-ikertzaileen artean bana zezaten. Idatzi horretan gogorarazten zenez, *"oro har, irakasleek beren lantokira joan behar dute eta bertatik eman behar dituzte eskolak, alde batera utzirik ikasleek eskolak eta/edo tutoretzak aurrez aurre edo telematikoki jasoko dituzten, osasun agintariek ezarritako neurriak bermatzeko aukeren arabera"*. Idatziak aipatzen zuen zer kasutan egin zezaketen lan irakasleek etxetik. Zehazki: *"irakasle-ikertzaileek indarrean dauden kontziliazio neurriei heltzen dietenean edo konfinamenduan egon behar dutenean osasun edo unibertsitate agintarien aginduz"*.

Hainbat gestio egin ziren egoera horri dagokionez eginiko planteamenduaren proportzionaltasunari buruz. Ondoren, Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordearen Instrukzioa iritsi zen, 2020ko abenduaren 1etik aurrera tutoretzak egiteko jarraibide berriei buruzkoa. Horien arabera, data horretatik aurrera eta abisu berrira arte: *"irakasle-ikertzaileek on-line tutoretzak egin ahal izango dituzte, UPV/EHUtik kanpotik"*.

Kontziliazioarekin lotutako beste kasu batzuk

Kontziliazioari lotuta, proba medikoetan positiboa emateagatik semea konfinatuta zuen irakasle-ikertzaile baten kasua heldu zitzaigun. Hala, UPV/EHUko ikastegiekin 2020/2021 ikasturterako hartu beharreko neurriei (2020ko urriaren 8ko eguneratzea) buruzko dokumentuak lantokira joatea debekatzen die: 1) COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak dituzten pertsonei, 2) gaixotasuna diagnostikatuta izanik isolamendu aldia amaitu ez dutenei, 3) etxeko koarentenan daudenei kontaktu estua edukitzeagatik COVID-19 diagnostikoa edo sintomak zituen pertsona batekin, eta 4) proba diagnostikoaren emaitzaren zain daudenei.

Kasu honetan –semea konfinatuta positibo emateagatik proba medikoetan–, harekin bizi den aitak edo amak etxeko koarentena egin beharko luke kontaktu estua edukitzeagatik baieztatutako kasu batekin, Osasun Sailaren COVID-19aren Zaintza Epidemiologikoko Protokoloak ezarri bezala, eta, ondorioz, zerbitzu ematea, ematekotan, ez litzateke egin beharko unibertsitatetik. Egoera honetan dagoen

irakasleak horren berri eman behar die bere sailari eta bere ikastegi/atal/eraikineko COVID-19 arduradunari.

Beste kasu batean, irakasle batek semea konfinatuta zuen ikaskide baten proba diagnostiko positiboagatik. Kasu horretan, aita edo ama ez zen kontaktu estutzat hartzen, kasu susmagarri posible baten zeharkako kontaktutzat baizik. Egoera horretan, ikastegiei hartu beharreko neurriei buruzko dokumentuak ez du inolako prozedura berezirik aurreikusten, eta soilik eskatzen da zorrotz betetzeko oinarrizko prebentzio neurriak eta arretaz zaintzeko sintomen agerpen posiblea. Beraz, ulertu behar dugu ezen, sintomak agertu ezean, irakasleak lantokira joan behar duela lanera. Hala eta guztiz ere, seme-alaba hamabi urtetik beherakoa balitz, aukera egongo litzateke indarrean dauden kontziliazio neurriak erabili eta baimena eskatzeko ikastegiko zuzendaritzari lana etxetik egiteko. Alde horretatik, 2020ko apirilaren 28ko informazio oharrak –UPV/EHUko irakasle-ikertzaileak lan presentzialera itzultzeari buruzkoa– adierazten zuen nola egiaztatu behar den kontziliazio beharra hamabi urtetik beherako haur bat zuzenean zaindu behar izateagatik. Ideia nagusia da oro har irakats lana presentziala dela irakasleentzat, ikasleek irakaskuntza jasotzeko modalitatea gorabehera (presentziala ala telematikoa), eta soilik lan egin daiteke etxetik behar bezala akreditatutako osasun edo familia kontziliazio arrazoiengatik.

Irakaskuntza ez-presentzialean irakasleen datu pertsonalak babesteko eskubidea

2020an irakasle batzuk kezkatu dituen gai bat izan da irudi eskubideak babestea streaming bidez irakastea. Zehazki, pertsona batek gai hau planteatu zion aldezleari eta defendatu zuen irakats modalitate honek borondatezkoa izan behar zuela irakasleentzat. Horrekin batera, zalantzan jartzen zuen ikastegiei indarreko arautegiaren arabera jokatu ote zuten baldin eta irakasleari exijitzen bazioten bideokonferentzia bidez irakastea, aldez aurretik haren baimena lortu gabe.

Norberaren irudirako oinarrizko eskubidea, Espainiako Konstituzioaren 18.1 artikuluan aitortua, maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoak garatzen du, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilar buruzkoa. Legearen bigarren artikulua arabera, *"legeek zehaztuko dute ohorearen, intimitatearen eta norberaren irudiaren gaineko babes zibila"*. Datuak babesteari buruzko arautegiak norberaren irudirako eskubidea aipatu eta haren edukia mugatzen du. Hala, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamenduak, 2016ko apirilaren 27koak, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoak (DBEO), 6. artikuluan ezartzen duenez, datuen tratamendua zilegi izango da, interesdunak baimena ematen duenean ez ezik, baita honako kasu hauetan ere: *"b) tratamendua beharrezkoa denean interesduna parte den kontratu bat gauzatzeko"*, *"c) tratamendua beharrezkoa denean tratamenduaren arduradunari aplikagarria zaion lege egin beharra betetzeko"*, eta *"e) tratamendua beharrezkoa denean interes publikoaren izenean edo*

tratamenduaren esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko". Horren arabera, kasu horietan ez da beharrezkoa izango baimena eskatzea datu pertsonalen titularrari.

Unibertsitate irakaskuntzaren alorrean, Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoak (LOU) unibertsitatearen esku uzten du "*goi mailako hezkuntzaren zerbitzu publikoa emateko eginkizuna, ikerketaren, irakaskuntzaren eta ikasketaren bidez*" (1. artikulua), eta irakaskuntza eginkizuna unibertsitatearen funtsezko egitekoetako bat da (33. artikulua).

Alde horretatik, irudia eta audioa grabatzea irakaskuntza birtualeko saio batean, baita gordetzea eta erreproduzitzea ere, datuak babesteko arautegiaren mende dagoen datu tratamendu bat da (DBEO eta 3/2018 LO, abenduaren 5ekoa, Datuak Babesteari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzkoa (DBEDBLO)). Tratamendu hori oinarritzen da irakasleak (eta ikasleak) UPV/EHUrekin lotzen dituen harreman juridikoan, eta haren zilegitasuna, aldiz, DBEOren 6.1 d) artikuluan ezarritakoaren arabera, honako honetan: hots, tratamendu horiek beharrezkoak direla LOUK emandako lege betebeharrak bat betez unibertsitateak ematen duen goi mailako hezkuntzako zerbitzu publikorako.

Testuinguru horretan, gaitasuna eman zaie ikastegiei irakaskuntza eta ikaskuntzarako beren plangintza onartzeko, eta aukera dute hor bideokonferentzia edo streaming bidezko irakaskuntza sartzeko. Jadanik esan dugunez, irakats modalitate honek berekin dakar datuen tratamendua, DBEOren 6. artikulua babespean.

Eskola bideokonferentziaz emateak ez du esan nahi irakasleak ikasgelan egin ohi duenaz gainera besterik egin behar duenik. Egia esateko, irakasleak bere ohiko lana egiten du, ohiko lekuan eta ohiko publikoarekin, eta desberdintasun bakarra da ikastaldearen zati batek telematikoki jarraitzen duela eskola. Hori horrela, zeregin hori bat dator guztiz irakats lanaren edukiarekin eta, beraz, DBEOren 6. artikulua aipatzen dituen kasuekin, eta kasu horietan zilegi da datuen tratamendua baimena eskatu behar izan gabe.

Irakasleen irudia proiektatze hutsak ez dakar berekin datuen tratamendu berezirik, pertsonari baimena eskatzera behartuko lukeen irudi eta ahotsen datuen erabilerarik, eta eskola streaming bidez ematean, ikasleek etxetik ikusten dute irakaslea, hori besterik ez, baina edukia ez da ez grabatzen ez zabaltzen. Hasiera batean, ikasgela birtual batean BBC bidez eginiko grabazioa soilik dago moderatzaile lana egiten duen pertsonaren esku, eta, hala badagokio, ikasgela barruan geldituko litzateke, helburu bakar batekin: ikasgelan aritzeko baimena duten ikasleek erreproduzitzea ikasturte akademikoan zehar.

Ikasleek eginiko grabazio edo zabalkunde oro, parte hartzen duten pertsona guztien berriazko baimenik gabe, legez kontrakoa izango litzateke, modu

presentzian emandako klase baten baimenik gabeko grabazioa izango litzatekeen modu berean.

Aldezlearen ustez, modalitate ez-presentzian irakasleen datuak erabiltzeak ez du haren baimenik behar, irakats lanari lotutako jardueren barruan egiten delako, beste ezertarako erabili gabe, soil-soilik ikasgela birtual batean erreproduzitzea dagokion ikasturtean. Alde horretatik, irudiak soilik egongo dira irakaskuntzan parte hartzen duten ikasleen eta irakasleen esku. Irakats saioa grabatuko balitz, gomendagarria litzateke ikasleei uztea material grabatua erreproduzitzen, baina ez deskargatzen, eta, nolana ere, ohartarazi egin beharko litzateke debekatuta dagoela saioa hartzea edo grabatzea, baita erreproduzitzea edo zabaltzea ere, osorik edo zati batean, erabilitako bitartekoa edo gailua edozein dela ere, eta bide horretan eginiko edozein jarduerak, indarrean dagoen arautegiak eskatzen dituen baimenak lortu gabe, oinarritzko eskubideen aurka jo dezakeela (datuen babesa, norberaren irudirako eskubidea eta jabetza intelektualeko eskubideak). Beraz, erabilera horiek debekatuta daude eta diziplina erantzukizuna, administrazio erantzukizuna eta erantzukizun zibila eragin dezakete.

UPV/EHUn irakasle-ikertzaileen ordezkapen poltsetan sartzeko titulazioa

Irakasle-ikertzaile batek aldezlearengana jo zuen jakin zuzenean bere saileko eta jakintza arloko ordezkapen poltsetan sartzeko hautagai bat onartuen zerrendatik kanpo gelditu zela "*deialdiaren oinarrietan eskatzen den titulazioa ez aurkezteagatik*". Zalantza zegoen kanpoan uzte hori bat zetorren arautegi aplikagarriarekin, kontuan izanik hautagaiak aurkeztu zuela diplomatura eta doktorego titulu bana. Azken batean, kontua zen zehaztea diplomadun eta, gainera, doktore batek, betetzen ote dituen irakasle-ikertzaileen ordezkapen poltsen deialdiak eskatutako baldintza akademikoak.

UPV/EHUko irakasleen ordezkapenak egiteko hautagaien zerrenda kudeatzeko erregelamenduaren 2.1 artikulua (Irakasleen arloko errektoreordearen 2011ko martxoaren 11ko erabakiz onartua eta 2011ko martxoaren 25eko EHAAn argitaratua) honako hau ezartzen du: "*Zerrendetan sartzeko baldintza orokorrak dira: 1.1.- Titulazio akademikoa: ezinbesteko baldintza da Lizentziatura, Arkitektura, Ingeniaritza, Gradu titulua edo baliokidea izatea*".

Ikus daitekeenez, erregelamenduak ez du aipatzen ez diplomatura titulurik ez doktorego titulurik zerrendetan sartzeko ezinbesteko baldintza gisa, eta kontua izango litzateke jakitea ea har daitezkeen titulazio *baliokide* gisa.

Unibertsitate Politikako Zuzendaritza Nagusiaren 2016ko otsailaren 10eko erabakiaren arabera (hautagaiak aurkeztutako Diplomadun Unibertsitate Titulu Ofizialaren baliokidetasuna zehazten duena Goi Mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparruko (MECES) mailarekiko), diplomadun titulu hori bat dator

MECESeko 2. mailarekin. Bestetik, uztailaren 15eko 1027/2011 Errege Dekretuak (Goi Mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparrua ezartzen duena) adierazten du MECESeko 2. maila Gradu mailari dagokiola.

Titulu batek MECESeko maila jakin batekin duen baliokidetasun erabakiaren ondorioak zehazteko, azaroaren 21eko 967/2014 Errege Dekretura jo behar da, prozedura bat ezartzen duena zehazteko arkitekto, ingeniari, arkitekto tekniko lizentziatu, ingeniari tekniko eta diplomadun titulu ofizialek goi mailako hezkuntzako kualifikazioen Espainiako esparruan duten baliokidetasuna. Haren 24. artikulua dioenez, *"ondorio akademikoak eta profesionalak izango dituzte, dagokien araudi sektorialaren arabera, maila horietan sartutako irakaskuntzei lotutakoak"*. Hori horrela, kontuan izanik Unibertsitate Politikako Zuzendaritza Nagusiaren erabakia, hautagaiak aurkeztutako tituluak Gradu ikasketei lotutako ondorio akademikoak eta profesionalak ditu.

Dena dela, ondorio profesionaleri erreparatuz gero, aintzat hartu behar da arautegiak muga jakin batzuk ezartzen dituela Administrazio Publikora sartzeari dagokionez. 967/2014 Errege Dekretuak berak honako hau adierazten du zortzigarren xedapen gehigarrian: *"Errege Dekretu honetan aurreikusitakoa ez zaio aplikatuko administrazio publikoetan sartzeko eska daitezkeen titulazioen araubideari; araubide hori, nolana ere, arautuko da Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legean eta aplikatu beharreko gainerako araudi espezifikoa aurreikusitakoari jarraituz"*. Horrenbestez, hautagaiak aurkeztutako titulazioak onartuta dauka gradu mailarekiko baliokidetasuna, ondorio akademiko eta profesionaletarako, baina ez du aukerarik ematen gradu titulazioa behar duten Administrazio Publikoko lanpostuetara sartzeko. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera, lanpostu horiek legozkieke A taldean sailkatutako kidegoei eta eskalei.

Hala eta guztiz ere, hautagaiak doktorego titulua ere egiaztatu zuen, eta titulu horrek aukera ematen du Euskal Administrazio Publikoko A taldera sartzeko, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak agindu bezala. Lege horren 43. artikulua xedatzen duenez, A taldean sartzeko titulazio maila hau da: *"Doktore, lizentziatu, ingeniari, arkitekto titulua edo baliokidea"*.

Hautagaiak aurkeztu zuen, alde batetik, bere jakintza arloko gradu mailan sartutako irakaskuntzei dagozkien ondorio akademiko eta profesionalak dituen titulu bat (Administrazio Publikoko A taldean sartzeko aukera izan ezik); bestetik, doktorego titulua, Administrazio A taldean sartzeko aukera ematen duena. Hori horrela izanik, Aldezlearen bulegoak ebatzi zuen hautagaiak aurkeztutako tituluak, ondorio guztietarako (akademikoak, profesionalak eta funtzio publikorako sarbidea), Gradu titulazioaren baliokideak direla, eta, beraz, baita UPV/EHUko irakasleen ordezkoren zerrenda arautzen duen Erregelamenduaren 2.1 artikulua ondo erabiltzeko ere.

Horretan oinarrituta, aldezleak gomendatu zion organo eskudunari azter zezala artikulua hori aldatzeko aukera, doktorego titulua eransteko ordezkoen zerrendan sartzeko aukera ematen dituen titulazioei. Horrela, egoera paradoxikoak saihestuko liriteke, hala nola kasu honetan gertatutakoa: hau da, pertsona batek aukera izatea unibertsitate irakasleen kidegoan sartzeko, edo irakasle atxiki edo agregatu gisa kontratatua izateko (non ezinbesteko baldintza den doktore titulua edukitzea), eta, aldiz, aukerarik ez izatea gure unibertsitateko irakasle-ikertzaileak ordezkatzeko hautagaien zerrendetan sartzeko.

Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu berriz ere Aldezlearen zerbitzuan konfiantza izan duten pertsona guztiei, baita gure lana eta independentzia errespetatu dituzten unibertsitate zerbitzu eta agintari akademikoei ere.

I ERANSKINA: 2020ko aztergaiak**Gakoak**

Taldea	Aztergai mota
IK: Ikasleak	KE: Kexa
IRI: Irakasle-ikertzaileak	KO: Kontsulta
AZP: Administrazio eta Zerbitzuetako langileak	B: Bitartekaritza
Beste batzuk: UPV/EHUtik kanpoko pertsonak	

Zk.	Taldea	Aztergai mota	Gaia
1095	IRI	KO	Disfuntzioa UPV/EHUren iragarki taularen kudeaketan.
1096	IK	KE	Erasmus beka itzultzeko ustezko eskaera okerra.
1097	IK	KO	Zer egin ikaslea eta tutorea ados ez daudenean epaimahaiak plagiogatik GRAL bati jarritako suspentsoarekin.
1098	Beste batzuk	KE	Arazoak ikertaldearen zuzendaritzarekin materialak baimenik gabe erabiltzeagatik.
1099	IRI	KE	Desadostasuna irakasle atxiki kontratua adjudikatzeko lehiaketa publikoaren ebazpenarekin.
1100	IRI	KO	Aldaketa erretiroagatik hutsik dagoen plaza baten lanpostuen zerrendan.
1101	AZP	KE	Desadostasuna lanpostu baten barne promozioarekin.
1102	IRI	KE	Informazio pertsonala zabaltzea eta konfidentziasuna urratzea.
1103	IK	KE	Desadostasuna Practicum bateko suspentsoarekin.
1104	IK	KO	Informazio eskaera irakasle-ikertzaile baten aurkako kexa aurkezteko prozedurari buruz.
1105	IK	KO	Practicumaren kalifikazioaren aurkako erreklamazioa aurkezteko prozedura.
1106	IRI	KO	Hizkuntzaren erabilera sexista unibertsitate zerbitzu batek bidalitako idatzietan.
1107	IK	KO	Proba baten aurkako erreklamazioa aurkezteko prozedura, web orrian argitaratutako irizpideak ez betetzeagatik.

1108	IK	KO	Irakasgai baten deialdia otsailera aurreratzeko aukera, GRALa matrikulatu ahal izateko.
1109	AZP	KO	Ezkontidea zaintzeko baimena eskatzea, gaua ospitalean igarotzera behartzen ez duen ebakuntza kirurgiko baten ondoren.
1110	IRI	KO	Epearen azken egunetan, arazoak 2019ko zerbitzuagatik kalte-ordaina eskatzeko aplikazioarekin.
1111	IK	KO	Kalifikazioen aurkako erreklamazioa aurkezteko prozedura.
1112	IRI	KO	Irakasle-ikertzaile batek bidegabeki zabaltzea saileko kide baten datu pertsonalak.
1113	IK	KO	Desadostasuna errektoretzaren erabakiarekin, etenaldi akademikoko egunean ikasleek dituzten betebeharrei buruzkoa.
1114	AZP	KE	Informazioa eskuratzeko eskaera bati ez erantzutea, lanpostuaren balorazioari buruzko espediente batean.
1115	IK	KO	Zer egin doktoregoko zuzendariak eskubideak urratzean.
1116	IRI	KO	Desadostasuna sailaren erabakiarekin, erretiroengatiko plazak betetzeari buruzkoa.
1117	IK	KO	Irakasleak ikasleen eskubideak urratzea.
1118	Beste batzuk	KO	Kudeaketa Teknikarien Poltsaren deialdiari buruzko informaziorik eza.
1119	IRI	KE	Kritika Docentiaz Programako alegazio eta errekurtsioak ebaluatu eta ebazteko prozesuari.
1120	IRI	KO	Saileko kide baten aurkako kexa aurkezteko alternatibak.
1121	AZP	KO	Kalifikazioak berrikustea eskatzeko aukera emaitza anomaloak dituen irakasgai batean.
1122	AZP	KO	Behar bezala arrazoitu gabe erantzutea ordezkapen poltsak handitzeko deialdi baten oposizio fasean jarritako alegazioei.
1123	IK	KO	Graduondoko matrikula baliogabetzea atzerriko hizkuntzaren baldintza ez betetzeagatik.
1124	IRI	KO	Zer egin master baten Batzorde Akademikoarekin izandako arazo batean.
1125	Beste batzuk	KE	Desadostasuna lan poltsaren deialdiei buruzko informazio eskaerak jasotako erantzunarekin.
1126	IK	KE	Arazoak nahitaezko praktika batzuen tutoretzarekin.

1127	IRI	KO	Zer egin ikasleek aurkeztutako keza baten aurrean.
1128	IRI	KO	Babes eskaera ikasleek irakasgaiaren ebaluazio sistemaren aurka aurkeztutako erreklamazioaren aurrean.
1129	IK	KO	Presondegian eginiko ikasketen aitortza.
1130	AZP	KO	Zer eskubide dauden eta zer egin behar den ahozko proba bat grabatzeko eskaeraren aurrean.
1131	AZP	KO	Zer egin ikasleen informazio pertsonal eta familiarrak izan behar duen konfidentziasunetik eta sekreturik ez dagoenean.
1132	IK	KO	Zer egin ikasle bati diziiplina espedientea irekitzean.
1133	IRI	KO	Arrazagatiko ustezko diskriminazio kasu baterako prozedura.
1134	IK	KO	Desadostasuna matrikulatutako hautazko irakasgaiak aldatzeko eskaera atzera botatzearekin.
1135	IRI	KO	Lanaldi partzialerako kontratatutako Irakasle-ikertzaileei eskatzen zaien arreta emateko ordu- prestasunarekin ados ez egotea.
1136	IRI	KO	Desadostasuna irakaskuntza inkestak ustez ezeztatzearekin, pandemiagatik, ikasturtearen bigarren lauhilekoan.
1137	IRI	KE	Zailtasunak sailean tramitatzeko plaza baten lanpostuen zerrenda aldatzeko eskaera, hizkuntza profila aldatzeagatik.
1138	IRI	KO	Pandemian irakasteko BBC tresna nahitaez erabili beharra.
1139	IK	KE	Doktoregoko titulo batean aipamena ezeztatzea.
1140	IK	KO	Aukera desberdintasuna ikasleen artean, alarma egoeran ebaluazio irizpidea aldatu ondoren.
1141	IRI	KO	Katedra askatasunerako eskubidea eta irakasleak eGelara igotako materialak babestea.
1142	IRI	KO	Eskolak Interneteko zerbitzarian grabatzea, baimenik gabe.
1143	IRI	KO	Nahastea bosturtekoen deialdian parte hartzeko eskubideari buruz.
1144	IRI	KE	Posta elektronikoz eskatutako datu sentikorren babesa.
1145	IK	KE	Erantzunik eza eta desadostasuna UPV/EHUko zerbitzu batzuen jarduerarekin.
1146	IK	KE	Antzekotasunak aurkitzeko softwarea erabiltzea ikasleen lanetan, beste garai batean irakasleen doktorego tesien defentsan erabili ez zena.

1147	IK	KE	Sailak uko egitea kanpoko erakundeekin "lankidetzan eginiko tesia" aipamena izapidetzeari.
1148	IK	KO	Desadostasuna ebaluazio proba baten puntuazioarekin, probaren berrikuspena egin ondoren.
1149	IK	KO	Irakasgai baten kalifikazioari erreklamazioa aurkezteko prozedura.
1150	Beste batzuk	KE	Unibertsitatera sartzeko proban pandemiagatik izandako aldaketekin desadostasuna.
1151	AZP	KE	Desadostasuna galdera baten inpugnazioaren erabakiarekin, AZPko langile kontratudunen hautapen prozesu batean.
1152	IRI	KO	Zalantzak irakats lana banatzeko irizpideen aplikazioari buruz, ikastegi batean baino gehiagotan irakatsiz gero.
1153	IRI	KO	Elkarbizitza-arazoak saileko beste irakasle batekin.
1154	IK	KE	Desadostasuna ebaluazio kudeaketarekin, Erasmus programan, alarma egoeran.
1155	IK	KO	Kalifikazioen aurkako erreklamazioa aurkezteko prozedura.
1156	IK	KE	Suspentso orokorra iruzurratik on-line eginiko ebaluazio proba batean.
1157	IK	KE	Suspentso orokorra iruzurratik on-line eginiko ebaluazio proba batean.
1158	IK	KE	Suspentso kopuru handia on-line eginiko ebaluazio proba batean.
1159	IK	KO	Familia eta graduiko ikasketak bateratzeko arazoak alarma egoeran.
1160	IK	KE	Ikastalde ordezkariak taldearen zati bati galdetu gabe hartutako erabaki kolektiboa.
1161	Beste batzuk	KE	Desadostasuna irakasle-ikertzaileen ordezkapen poltsak bertan behera uztearekin, 2019/2020 ikasturtean.
1162	AZP	KO	Zer egin hierarkian gorago dagoen pertsona baten ustezko botere abusuen aurrean.
1163	IRI	KE	Norberaren irudirako eskubidea urratzea.
1164	IK	KO	Azterketa ikusteko eskubidea irakasgaiaren irakaslearen aurrean eginiko berrikuspenean.

1165	Beste batzuk	KE	Arazoak norberaren prestasuna aldatzeko AZPkoen poltsetan.
1166	Beste batzuk	KE	Ordezkapen poltsen eraketa eta kudeaketari buruzko gerentziaren erabakia eskuratzeko ezintasuna.
1167	IRI	KE	Arazoak irakasle-ikertzaileen ordezkapen poltsen aplikaziora sartzeko eta epeen barruan poltsan sartzea eskatzeko.
1168	IK	KO	Ezohiko deialdira arte MALa tutorizatzeko prestasuna.
1169	IK	KO	Irakasgai guztiak gainditu gabe, GRALa matrikulatzeko aukera.
1170	IRI	KO	Sailak atzera botatzea adostutako irakats esleipena aldatzeko eskaera.
1171	IK	KO	On-line eginiko azterketa baten kalifikazioaren aurka erreklamazioa aurkezteko prozedura.
1172	IK	KO	Irakasgaiak baliozkotzeko erreklamazio batean aurkeztutako dokumentazioa berreskuratzeko ezintasuna.
1173	IK	KO	Graduaren azken irakasgaia irailean matrikulatzeko betebeharra, haren ebaluazioa eskatzeko konpentsazio bidez.
1174	IRI	KO	Zer egin irakasle batek lankideekin eta unibertsitatearekin oso zakar jokatu duenean.
1175	IK	KE	Irakasgai baten kalifikazioaren aurkako erreklamazioa ebaluazio sistema ez betetzeagatik.
1176	IK	KO	Bigarren lauhilekoko matrikula baliogabetzeko eta tasak itzultzeko eskaera, ezin bateratzeagatik familia zaintza eta ikasketak.
1177	Beste batzuk	KO	Beka ukatzea familia unitatearen sarreretan zenbatzeagatik guraso batek ordaindu gabeko mantenu pentsioa.
1178	IRI	KO	Saileko irakasleen artean irakaskuntza banatzeko irizpideak: lehenetasuna taldeak esleitzean eta irakasgai osoak.
1179	Beste batzuk	KO	USE tasetatik salbuesteko eskubidea, batxilergoan ohorezko matrikula lortzeagatik.
1180	IK	KO	Ikasketak jarraitzeko aukera permanentzia urteak amaitu eta gero.
1181	Beste batzuk	KO	UPV/EHUko ikasketetan ohiko deialdian izena emateko eskubidea argitalpen atzerapenagatik oraindik USEren kalifikazioa jakin gabe.

1182	IRI	KO	On-line irakasten duen irakasle-ikertzailearen irudi eskubidea babestea.
1183	Beste batzuk	KE	Bizilekutik hurbilen dagoen kontsul bulegora postaz bidalitako titulua galtzea.
1184	Beste batzuk	KE	Arazoak UPV/EHU n emandako zerbitzuen aitortzarekin, plaza bat lortzeko beste administrazio publiko batean.
1185	Beste batzuk	KO	Susmoa ez diotela onarpen nota arautegiaren arabera kalkulatu. Ondorioz, ez du plaza eskuratu.
1186	Beste batzuk	KO	Graduko ikasketetan izena emateko dokumentazioa epearen barruan aurkeztu ez izanaren ondorioak.
1187	Beste batzuk	KO	Lehen ikasturtearen matrikula modu ez-presentzian egiteko aukera, pandemiak sortutako mugikortasun arazoengatik.
1188	IK	KO	Matrikulan kenkariak lortzeko eskatzen den dokumentazioa epearen barruan bidaltzeko modua.
1189	IK	KO	Erasmusen eginiko eta oraindik kalifikatu gabeko irakasgaien matrikula, eta prezio publikoak berreskuratzeko eskubidea kreditu horiek aitortu eta gero.
1190	IK	KE	Ez zaizkio onartzen master ofizial batek ordeztu duen iraungitako master batean eginiko kreditu guztiak.
1191	IK	KE	Automatrikula egitean, nahi den irakaskuntza taldea aukeratzeko ezintasuna.
1192	IK	KO	Alternatibak irakasgai baten deialdi guztiak amaitu ondoren.
1193	IK	KE	Hasieran erabakitako prestakuntza ibilbidea egiteko ezintasuna, pandemiara egokitzeko ordutegi berrien ondorioz.
1194	Beste batzuk	KE	Ez diote esaten itxaron zerrendan zer lekutan dagoen, eskatu duen graduko onarpen zerrenda itxi ondoren.
1195	IK	KO	Azterketa ikusteko eta haren kopia eskuratzeko eskubidea.
1196	IK	KO	Zer egin master batean onartu ez dutenean, arazo informatikoek eragindako berrantolaketen ondoren.
1197	IK	KO	Tituluaren eskaera egiteko ezintasuna, espedientean kalifikazio guztiak ez edukitzeagatik.
1198	AZP	KO	Epea zenbatzea ebazteko eskumenik ez duen organo baten aurrean aurkeztutako administrazio errekurtsio batean.
1199	IK	KO	Master baten irakaskuntzari buruzko kexa aurkezteko prozedura.

1200	Beste batzuk	KO	Matrikula baliogabetzea onartua izan den ikasketetan, izena ematean alegatutakoak ez akreditatzeagatik.
1201	IRI	KO	Desadostasuna esleitu zaion irakats betekizunarekin, uste duelako ez duela betetzen irakaskuntza aldi baterako esleitzeko erregelamendua.
1202	IK	KO	Mugikortasun beka bat itzultzeko betebeharra, eskatutako baldintza akademikoak ez betetzeagatik.
1203	IK	KO	Beka bat lortzeko ezintasuna, gradua amaitzeko falta zaizkion kreditu guztiak ezin matrikulatzeagatik.
1204	IK	KO	Usteko informazio okerra kredituak aitortu ezin zaizkien curriculumetik kanpoko praktiken matrikulan.
1205	IK	KO	Atzerrian ikasitako irakasgaiak aitortzeko ezintasuna, bere ikastegian mugikortasun matrikula zabaldu dela ez berresteagatik.
1206	IK	KO	Soberan ikasitako hautazko kredituak zenbatzeko aukera, gradua amaitzeko falta zaizkion nahitaezko kredituak konpentsatzeko.
1207	AZP	KE	Norberaren irudirako eskubidea urratzea.
1208	IK	KE	Matrikula baliogabetzea onartua izan den ikasketetan, izena ematean alegatutakoak ez akreditatzeagatik.
1209	IK	KO	Osasun arazoengatik, master batean eginiko matrikularen irakasgai batzuk baliogabetzeko aukera.
1210	IRI	KO	Irakasle-ikertzaileari dagokion irakats lana kalkulatzeko, baja baten ondoren lanari berrekitean.
1211	IK	KO	Soberan matrikulatutako hautazko irakasgaiak ezeztatzeko aukera.
1212	IK	KO	Zailtasunak beste unibertsitate batean ikasitako irakasgai bat aitortzeko, sartzeko baldintza formalak ez betetzeagatik.
1213	Beste batzuk	KO	Doktorego programa batean matrikulatzeko ezintasuna, baldintza akademikoak ez betetzeagatik.
1214	Beste batzuk	KO	Master batean matrikulatzeko ezintasuna, informatika arazoengatik.
1215	IRI	KO	JAPren irizpideak erabiltzea esleitutako irakats betekizuna kalkulatzeko.
1216	IRI	KO	Kontziliazio neurrietarako eskubidea, etxean seme-alabak bakartuta edukitzeagatik.

1217	IRI	KO	Pandemian, etxetik on-line tutoretzak egiteko aukera.
1218	IRI	KO	Saileko lankide baten gezurrak eta irainak salatzekeo prozedura.
1219	IK	KO	Zer egin desadostasuna dagoenean baliozkotze erabaki batekin.
1220	IK	KO	Gainjartze arazoak graduako irakasgaien artean.
1221	IRI	KO	Ikasleen eta saileko kideen funtsik gabeko keak.
1222	IRI	KE	Irakasle-ikertzaileen ordezkapen poltsetan sartzeko eskatzen den titulazioa.
1223	IK	KO	Praktikak gainjartzea bigarren lauhilekoko bi irakasgaitan.
1224	IK	KO	MALa ikasturte berri batean matrikulatzeko betebeharra, pandemia dela eta aurreko ikasturtean aurkeztu ezin izatean.
1225	AZP	KO	Langileek lanpostuan maskara nahitaez erabiltzea.
1226	IRI	KO	Ikasle baten portaera sexistak eta disziplinarik gabekoa.
1227	IK	KO	Ikasten ari den masterraren espezialitatea aldatzeko aukera.
1228	IK	KO	Azterketa Erasmus programa egiten ari den herrialdetik egiteko aukera, pandemiak sortutako arazoengatik.
1229	IRI	KE	Usteko ez-betetzeak fakultateko hauteskunde prozesuan.
1230	IK	KO	Irakasgai baten praktikak jarraitzeko ezintasuna, COVID-19a dela eta ezarritako konfinamendu protokoloa ez betetzeagatik.
1231	IRI	KO	Sailetako Ebaluazio Batzordeek irakasleak eginiko jarduera aitortzea (akademikoa eta ekonomikoa).
1232	IRI	KO	Ezkontzagatiko baimen ordaindua.
1233	IK	KO	Zailtasunak izen aldaketa aitortzeko pertsona transexual baten matrikulan.
1234	IRI	KO	Ikasle baten irainak irakaslearen aurka twitterren.
1235	Beste batzuk	KO	Desadostasuna ebaluazio batzordearen lanarekin, plaza bat betetzean.
1236	IK	KO	Ebaluazioa on-line egiteko eskubidea, Erasmus programatik ezin itzultzean pandemiagatik.